

Itziar Aizpurua

Jokin Gorostidi  
Autobiongrafia

 Txalaparta

*Izenburua:* Jokin Gorostidi. Autobiografia  
*Egilea:* Itziar Aizpurua  
*Azalaren eta bildumaren diseinua:* Esteban Montorio

*Argitaratzea:*  
Editorial Txalaparta s.l.  
Navaz y Vides 1-2  
78. Postakutxa  
31300 Tafalla  
NAFARROA  
Tfnoa. 948 703 934  
Faxa 948 704 072  
txalaparta@txalaparta.com  
<http://www.txalaparta.com>

*Lehenengo edizioa*  
Tafalla, 2006ko abendua  
*Bigarren edizioa*  
Tafalla, 2007ko martxo

*Copyright*  
© Txalapartak edizio honetarako  
© Itziar Aizpurua

*Diseinu grafikoa*  
Nabarrerria argitalpen kudeaketa  
*Inprimaketa*  
Graficas Lizarra

I.S.B.N.  
978-84-8136-472-9  
*Lege gordailua*  
NA-860-07

 Txalaparta

# Eskaintza

**B**ehin, munduan den ikasgairik naturalenak oztopo latzak aurkitu zituen Euskal Herri zeritzan Europako herri zaharrenetariko baten amen magaletan. Baina herritarrek bazekiten ikasgai hura herria zutik zeukan zutoina zela, eta haurrek bereganatzen ez bazuten, ez zutela aurrerantzean herririk izango. Argi zuten herria izaten segi nahi zutela, bestela mundua begi bistatik aienatuko zitzaielako: haritzak ez ziren haritz izango, goizetik iluntzera dena itxuraldatuko zen, eta, batik bat, inor ez zen aurrerantzean ordura artekoa izango. Norbait izango ziren, agian, baina ez norbera. Garai hartan, beraz, herritarrei buruhauste bilakatu zitzaien ikasgai hura: herri sena, belauldiz belaulaldi transmititzea.

Laster jabetu zen Euskal Herria, oztopo haien atzetik etsai boteretsuak zeudela. Horregatik, lanabes indartsu baten beharra ikusi zuten eta, halabeharrez, eskuetan hartu zuten borroka. Gure arbasoak ziren.

Bide horretan, azken berrogei urteetan Ezker abertzalea izan da, zalantzarik gabe, arbasoen suziriari irmo eutsi diona. Ezker abertzalearen bizkarrezurra, militantzia.

Etsaien aurrean burua makurtu gabe, jauntxoan mahaitik apurak jasotzeko belaunikatu gabe, militantziak beti jakin izan du duintasun eta eskuzabaltasunez askatasun bidean urratsak egiten, bide ertzetan bizia bera galdu arte, batzuetan.

Horregatik, Ezker abertzaleko militante horri, zuri, eskaini nahi dizugu Jokinek eta biok liburu hau. Orain arte egin dugun bezala, abertzale eta ezkertiar guztion bizi-puskak elkartzeari esker lortuko dugulako egunen batean Euskal Herri independente eta sozialista.

# Lehenengo atala

**A**gian ez da unerik aproposena lehenengo hitzak hona ekartzeko. Uztailaren bigarren eguna da gaur, igandea, eta hurbil da gauerdia. Baina idatzitakoa gero ezabatu ere egin dezakedanez, beharbada edozer esateko unerik aproposena da.

Nire maitasun handi eta bakarraz hitz egiten nola hasi behar dudan, hori da nire galdera.

18/98 auzia ezaguna egiten ari da gizartean. Alde bate-tik, luze doalako, jende asko dagoelako auzipeturik eta nahi ez dutenak ere dagoeneko entzuten ari direlako nonahi epaiketa honi ez dagoela eusterik bere horretan, gezurra, aldrebeskeria, eta gorrotoa besterik ez direla ageri euskal herritar eta abertzale oren aurka. Muntaia zikin bat besterik ez, epaile instruktore baten buruan egositakoa.

Jokin, beste 64 lagunekin batera auzipetua dago bertan, batzuek besteekin zerikusirik ez duten auzi erraldoi honetan. Bitxia da: epaiketa hasi zenean, askok ez zuten elkar ezagutu ere egiten.

Epaiketa 2005eko azaroaren 21ean hasi bazen ere, 2006ko apirilean, oraindik falta ziren auzipetu bakan bazuk epaimahaiaren aurrean deklaratzeko. Jokin zen horietako bat.

Lan hura behar bezala betetzeko, Iñigo Iruin abokatuarekin hitzordua genuen apirilaren 21ean, ostirala, hark Donostian duen bulegoan, apirilaren 24ko deklarazioa prestatzeko asmotan.

Ez zen Jokinentzat lehen epaiketa, ezta magistratuak ikusi zituen lehen aldia ere. Espainiako eta Frantziako estatuetako hainbat gobernutako epaile ugari ezagutu behar izan zituen. Eta denek salaketa berbera egin izan zioten: Euskal Herriaren burujabetzaren alde borrokan aritzea, independentziaren eta sozialismoaren alde egitea.

Jokin Gorostidi ezagutu nuenetik gaur arteraino, lagun, burkide, maitale eta senar bezala ez da nolanhikoa izan. Harrotasunez diot, goitik beherako pertsona batekin bizitzeko aukera izan baitut, eta aberastasun hori da altxorrik preziatuena niretzat, eta hala izango da aurrerantzean ere.

## **Ume aroa**

Euskal familia askotan bezala, Jokinen gurasoak base-  
ritik kalera etorriak ziren. Aita, Inazio, Urkizutik, eta Ama,  
Kontsesi edo Kontxita, Amezketako Uhartetik. Tolosara  
ezkondu ziren biak. Seme eta alaba bana izan zuten. Bi  
anai arreben artean Jokin zen zaharrena eta Izaskun biga-  
rrena. Tolosan jaio zen, Rondilla kalean, 1944ko azaroaren  
4an. Rondillak –tolosar guztiek hala deitzen diote–, Pablo  
Gorosabel du izen ofiziala, eta errepide nagusia zen Do-  
nostiatik Gasteizerako bidean. Jokin bizi zen etxeko leihoa-  
k Rondillara eta Justizia plazara begira daude, gaur egun  
Euskal Herria deitzen den plaza horretara. Leku horretan,  
Jokinen aurrekoek ezagutu zuten kartzela deitutako tokia  
ere bazegoen. Ez dakit duela bi mende ere hor egon zen  
ala ez, eta han eduki ote zuten gatibu euskaldunok hain  
maitea dugun Iparragirre abeslaria, baina badakigu Tolo-  
san atxilotua egon zela, mundu zabalean Euskal Herria  
ezagutarazi zuen bardoa. Euskal Herriarekin maitemindu-  
tako abertzalea zen. Zenbat aldiz kantatzen zituen Jokinek

ahopean haren abestiak! «Zibilak esan naute biziro egoki, Tolosan behar dela gauza erabaki. Giltzapean sartu naute poliki-poliki». «Hara nun diran mendi maiteak, hara nun diran zelaiak». Biok gustukoa genuen pentsatzea Jokinen haurtzaroko leku hark historia handia eta istorio apalak gordetzen zituela.

Plaza hura izan zen Jokinen jolaslekua eta bizitzaren lehen leihoa: mendirantz edo menditik, artzainek han igitzen zituzten egunak artaldeekin. Eta esnea eroatera joaten zen nire kuttuna. Ganadu feria ere han egiten zen astelehenero, eta baserritarren bilgune eta solas leku bihurtzen zen Justizia plaza. Ijitoak, zirkuak, titiriteroak eta gainerakoak ere biltzen omen ziren, eta lehen aldiz han ikusi zuen Jokinek jende berezi hura: tomatea sagarra baltz bezala jaten zuten, eta denak begira geratzen zitzaizkien. «Gizajoak! Hori da gosea pasatuko dutena», esaten omen zion sarritan amak.

Bost edo sei urterekin, Eskolapioek Tolosan zuten eskolara eraman zuen amak ikasketak egitera. Niri gertatu zitzaidan bezala gertatu zitzaion hari ere: gazteleraz ez genekien tutik ere, eta euskaraz egiteagatik zigorra jasotzen genuen: hatzetan zumearekin kolpeak ematen zizkiguten, atsedendietan eskolan gerarazten gintuzten, hormaren kontra belauniko jarri behar izaten genuen, eta antzekoak.

San Frantzisko elizan akolito izan zen Jokin zortzi bat urte zituela, eta lehen mezetara bidaltzen zuen amak. Pare bat urtetan edo ibili zen horrela. Gosaria ematen zieten nonbait, baina Jokin txikia ez zen jatuna, eta etxean frantziskotarrek gosaria eman ziotela esaten zion amari, eta fraideei, berriz, etxean gosaldtu zuela. Martingala ugari erabiltzen zuen amarekin nahi zuena lortzeko, bazekien eta zenbat maite zuen. Denbora gutxira dirua eskaini behar izaten zion amak mezetara joan zedin. Irribarre bihurri batekin kontaktzen zuen dirua hartu, eta amak leihotik ikus zezakeen tokiraino zuzen-zuzen joaten zela elizarantz, gero, atzera begiratu, eta amak ikusten ez zuela ohartuta, buelta erdia eman eta ospa!, korrika alde egiten zuen lagunengana.



Garai hartan bizikleta bat izatea izugarria zen. Langile familia batean zaila zen horrelakorik, lanera joateko ezinbesteko bitartekoa izan ezean, behintzat. Bada, Jokinek bizikleta beti izan zuen gustukoa. Zaletasunen artean, mendiaren ondoren bizikleta izan zuen beti. Eta beste maila baten, baita esku-pilota eta atletismoa ere.

Bizikleta edukitzeak egundoko ilusioa egiten zion, baina aitak etxera ekartzen zuen soldatarekin ezin zuela eskuratu jabetuta, lanean hasiko zela adierazi zien gurasoei. Aita *Papelera Española*-n aritu zen lanean erretiroa hartu arte, eta ama etxeko lanetan.

## Lanean hasi

Hamahiru urte eta erdirekin hasi zen lanean, halabeharrez, etxean beste soldata koxkor baten beharra zegoelako. Praka motzekin irudikatzen dut, nahiz laster luzeak jantzi beharko zituen zangoetako ileak estaltzeko, eta baita bizarrak egin ere, langile itxura hartuta, hain gaztea izan arren. Badira haurtzarora azkarregi utzi behar izaten duten umeak, eta horietakoak izatea suertatu zitzaigun Jokin eta bioi.

Ordurako Komertzioa ikasten hasita zegoen, Batxilerraren antzekoa, eta gurasoek ez zuten nahi ikasketak uzterik. EMUAn hartu zuten aprendiz, Irurako Metalurgia lantegian. Zenbat laido jaso ote zituen nire kuttunak! Berak esanda dakit! Batzuek eta besteek ume bezala erabiltzen zuten beren mesedeetarako, ura ekartzeko, ogitartekoa, eta abar.

Zortzi orduko lanaldia egin eta gero, ikasketekin jarraitzen zuen. Tolosako Lanbide Eskolan hiru urte egin zituen Marrazketa eta Delineazioa ikasten, eta beste bost urte delineatzaile ikasketak eginez bere kabuz, garrantzizkoa baitzen planoez baliatzeko eta.

Beharbada hortik jarraituko zuen herri aske eta normalizatu batean bizi izan bagina. Hori zioen, behintzat, nahiz eta bere gustuko karreraren bat izatekotan munduan, hori Medikuntza zen. Kartzelan izan zen bitartean, saiatu zen larrialdietarako oinarrizko kontuak ikasten, eta erizaintzarako ikasketak eta praktikak egiten ere bai. Psikologiaz salgai zeuden liburu gehienak irakurri zituen, Freuden

guztiak, edota Castilla del Pinorenak... Gogoan ditudan egileetako batzuk dira.

Bere hitzetan, txikitandik izan zuen joera hori, baina areagotu egin omen zitzaion ETaren baitako *insurrekzio armatuaren* eskema eztabaidetan. Gero, V. Biltzar Nagusian baztertu egin zen matxinadaren ideia, baina istripu bat izatea edo tiro bat jasotzea gerta zitekeenez, oinarritzko sorospenak ematen ikasi nahi izan zuen.

Bizitza osoan entzun diot kontu bera: jaiotzen zaren familiak zerikusi handia duela etorkizunean, eta bere familia aberats izan balitz, bera medikua izango zela. Orduan beharbada ez genuela elkar ezagutuko erantzuten nion nik, eta hori pena handia izango zatekeela.

Azkenean lortu zuen bizikleta. Tolosatik Irurara joateko ibilgailuren bat behar zuen, eta eskuratu zuen nahi zuena. Kamioien kartoletatik helduta joateko izan arren, baina bizikletan!

Geroago, lanera joateko bi pisuko autobusa lortu zuten. *Alkatraz* izena jarri zioten. Barroteren batzuk zituen nonbait, eta kartzela itxura hartu zioten berehala. Jokin ibili zen ugazabekin negoziaketetan, lankideek beren arduradun aukeratu baitzuten. Beti gogoan zuen bilera eztabaidatsuak izan zituela: «Denbora luzez, autobusaren beharra aldarrikatu ondoren, lortu genuen, eta hara non lantegiko jabeek soldatatik eguneroko bi joan-etorriak kendu nahi zizkiguten. Ez naiz gogoratzen 2 edo 4 pezeta ziren. Langileentzat mesedea zela argudiatzen zuten. Eta nik esaten nien: “nik dakidan bakarra da, lehen honenbeste irabazten nuela eta orain beste honenbeste gutxiago. Beraz, mesede gutxi langileentzat. Gainera, autobusaren bidez, zuek ziurtatzen duzue jendea beti orduan sartuko dela lantegira, eta langileek istripurik ez dutela edukiko; eta hori beti da ugazaben mesede”». Ugazabak gogor eta gure Jokin burugogor, azkenean langileek irabazi zuten borroka hura.

Beti ibili izan zen lagun zaharragoekin. Horrela ikasi omen zituen kontu asko. Bat, igeri egiten Insalusko urtegian. Soka gerrian lotu eta han ibiltzen omen zen buruz

behera eta hankaz gora. Leku horretatik Nafarroarantz pasatzen ginen bakoitzean gogorarazten zidan. Motoan eramaten zuen laguna, eta igeri egiten erakutsi ziona istripuz hil zen moto harekin. Hura ere beti gozoan izaten zuen.

Nerabea zela, nahiz ordurako gizon egina egon, lanak uzten zion bakoitzean, mendira jotzen zuen lagun koadri-larekin. Garai hartan sei eguneko lan astea izaten zen, eta zenbait enpresatan igande goizean ere lan egiten zen.

Papera egiteko makinak sortzen zituen enpresan doitzte eta muntatze lanetan ibiltzen zen Jokin. Ez zen harritzekoa, beraz, kanpoan ibiltzea, Espainia aldean, baina, batez ere Herrialde Katalanetan: Tarragonan, Lleidan... Valentziako Burrianako laranjondo batean badu argazkia berarekin joan zen beste lankide batekin. Zangotzan ere egon zen denboraldi batean makinaren bat muntatzen, eta bazkalondoan Xabierera joaten omen zen, 8 kilometro oinez eginda, arratsalde-pasa.

Mendia zuen zaletasun handiena. Euskal Herriko mendiak, Pirinioak, Gredos, Almudaien... Espainiako mendietan asko ibilitakoa zen Jokin. Alpino-Uzturre Mendi Taldeko bazkide zen. Egun ona egin edo txarra, negu edo uda izan, iganderoko irteera haietan aurkitzen zuen atsedendia eta gozamina. Oinetakoekin edo eskiekin, han ibiltzen zen haize garbia arnastuz eta arranoei so eginez, lagun giroan. Bere ama ez zen beti gustura geratzen irteera haiekin. Zenbait egunetako txangoa prestatu bazuten, ama ohe azpian begira ibiltzen zen sokaren bat ikusiko ote zuen beldurrez, ez baitzitzaion gustatzen semea eskalatzeko ibiltzerik. Eta Jokini, berriz, gero eta gehiago gustatzen! «Hogeita bat urterekin alde egin behar izan ez banu, Penintsulatik kanpoko mendietara ere abiatuko nintzatekeen, asmo handiak nituen horretarako», esan zuen behin elkarrizketa batean.

Nik gerora galdetzen nion ea mendi irteeretan gustuko neskaren bat edo ezagutu ote zuen, edota norbaitekin maitemindu zen. Badakizue, beti norberak nahi izaten du lehena izan amodio kontuetan... Bere erantzuna beti antzekoa izaten zen: «Begira, Itziar, mendira joaten ginene-

an, neska-mutil koadrila ginen. Eta gurekin Andoaingo neskak ibiltzen ziren. Nik ez dakit neure atzetik inor ibili zen, baina ziur esaten dizut ni ez nintzela ibili. Gehiago esango dizut: menditik herriren batera jaisten ginenean, eta hango plazan dantzarako musika jotzen ari zirela ikusten genuenean, mutilak, korrika batean, tabernara sartzen ginen, badaezpada».

Beti sinetsi diot, ez baitzuen dantzarako irrikarik ezta trebetasun handirik ere. Eta lotsatia zela ere esan beharra dago. Hori bai, harroxko jartzen zenean, esaten zidan beti izan zuela norbait bere maitasunaren irrikaz. Eta hori ere sinesten nion.

### **Parrandazalea**

Jokin ez zen *santua*, ezta nahi ere. Koadrilan gaeko parrandak egindakoa da, garai hartan gazte aitak zorrotz kontrolatzen zuen arren etxera goiz itzul zedin. Behin aurre egin behar izan zion aitari, soldata osorik amari ematen ziola eta hark emandakoarekin konpontzen zela eta ez zuela inolako kontrolik behar. Izan ere, adinez oraindik gaztea zen, baina gizon baten bizitza egiten zuen. Orduetik aurrera ez zuen aita sekula zain eduki.

Amak, berriz, ama guztiak bezala, «hartu honenbeste» esaten zion kanpora joan behar zuenean, «baina bueltan ekarri sobratzen dena». Eta nire kuttunari ez ezer sobratzen. Hori esaterakoan, gainera, irribarre egiten zuen. «Amari beti esaten nion honelakori edo bestelakoari utzi niola dirua, eta itzuliko zidala».

Igandean, etxera itzultzean bertakoak erretiratuta egoenez gero, bazekien nora joan: *freskerara* edo etxeko balakoira. Orduan ez zen hozkailurik, eta bezperan egindako janaria edo sobratu zena, edo haragia, arraina, esnea... egurrezko kaxa batean edukitzen zuten, sare batekin bilduta eta itxita, etxeko tokirik freskoenean. Hori zen *freskera*. Ama Kontxitak, batzuetan, etxeko balkoian aulki gainean ere uzten zituen prestatutako jakiak. Hurrengo egunean, noski, amak ederki asko nabaritzen zuen txibien falta, eta baita ogia non busti zuen ere.

Jokin ez zen mutil izugarria, koadrilan nabarmentzen den horietakoa, baina arreta sortzen zuen mutil eta gizona izan zen: apala, batez ere, entzuten zekiena, xumea, baina berezko dotoretasuna zuena. Baketsua, ideia sendoak zituen pertsona, leiala eta fidela benetako lagunekin. Lehengo zaldunetakoa edonorekin, xehetasunak zaintzen zekiena, eta oso serioa lan eta ardura guztietan.

Tolosar gehienak bezala, inauterizalea zen. Bere herriko inauteriak, noski, munduan dauden ederrenak eta jatorrenak. Beti aipatzen zidan Francok berak ere ezin izan zituela inauteriak debekatu, nahiz eta izena aldatu zien, eta *Fiestas de Primavera* izendatu. Kontua da bere horretan jarraitu zutela hiru eguneko inauteriek. Izan ere, igandean hasi eta astearte gauean bukatzen ziren. Asteazkenean, denak lanera. Bestalde, nahiko arriskutsua izaten zen asteazkeneko laneguna, oro har, langile gehienak erdi hordituta, edo erabat hordituta agertzen baitziren lanera. Azkenean, asteazken goiza ere jai egitea erabaki omen zuten. Ostegun Gizen eguna jan-edan eguna izaten zen, eta elkarreetan biltzen ziren gizon guztiak, ospatzeko. Emakumeek garai hartan ez zuten sartzetik elkarte horietan eta, beraz, etxean ospatu behar... Larunbatean, berriz, oker ez banago, danborrada egiten zuten, eta gizonen arteko jokatzeko zituzten kantineraren eta gainerako guztien rola.

Jokinek koadrilarekin ospatzen zituen inauteriak. Gabonak igarota hasten omen ziren *karroza* prestatzen. Lehen gauza lekua bilatzea izaten zen: lantegi zaharren bat edo etxe azpiko lokal handiren bat, karrozaren egitura sar zedin. Han ibiltzen ziren, gazte bizardun eta iletsuak, bakoitza bere emakume jantziak atontzen. Urte batean, lehen saria jaso omen zuten «Haize-orratz» Veleta Elkartekoek. Hangoa zen Jokin. Sari hura *Haurren parkea* karrozarekin jaso zuten.

Jokin, aipatu bezala, lotsatia zen, baina ez bera bakarrik. Karrozara igo baino lehen pattar tragoxka ederrak sartzen omen zituzten gorputzean hotza aitzakiatzat harturik. Rondilla kaletik pasatu behar, kale handiena baita,

errepidea, eta han ama balkoitik begira zegoela jakinda, lotsa-lotsa eginda burua makurtzen omen zuen amak piura horrekin ikus ez zezan: amonaz mozorrotuta, parkean, orratzekin galtzerdiak egiten, eta haurra zaintzen txirristan. Oso *guapa* ageri da argazkietan!

Hurrengo urtean, *Hawai* izenarekin atera zuten karroza lehiaketaz kanpo utzi zuten, “immorala” zela-eta. Mutil gijajoak! Gorputzeko ile guztia kentzen ez zuten lan makala hartu, eta horretarako! Haserreak ere sortu ziren egun horretan, baina barre ugari ere egin zuten erabaki haren harira.

Urte batean soilik ez ziren inauteririk ospatu: 1971n, Burgosko Prozesua zela eta.

Lehen inauteriak 1978an igaro genituen elkarrekin, Tolosan bizitzen jarri ginenean. Hiru egun etxeratu gabe, parranda hutsean, ondo jan eta ondo edan, dantzan eta salto ugari eginenez. Ahaztezinak!

## **ETAn sartzea**

60ko hamarkadan, giro jatorra eta abertzalea genuen mendizaleen artean, eta baita mendiko elkarteen artean ere. Elkarte eta giro horretan frankismoaren kontrako giroa zen nagusi, eta frankismoak sortutako egoerari erantzun zehatzak ematen eta herrian gertatutakoak aztertzen saiatzen ginen bertoko gazteok. Giro hori, nola ez, geroz eta sona handiagoa hartzen ari zen ETA erakundetik hurbil zegoen eta aurki hedatu zen erakundea Jokin ibili ohi zen inguru *apropos* horretan. Horren erakusgarri izan ziren 1960 eta 1961 urteetan, Jokinek hamasei urte zituela, Tolosan gertatu ziren erorketak, non jende abertzale oso ezaguna atxilotu baitzuten.

Izaskungo Elizan Tolosako erreketek erabilitako hiru *piperpoto*, kendu egin zituen ETAk, Espainiako hiru bandera, alegia. Ekintza hura oso sonatua izan zen Euskal Herrian, eta ikusi besterik ez zegoen zer-nolako erantzuna eman zion erregimen frankistak: Espainiatik jendea autobusez etorri zen banderari egin zioten «iraina kitatzera»,

eta Jokinek, beste askok bezala, Tolosatik alde egin behar izan zuen, badaezpada.

Horrek guztiak eta lehen aipatutako giroak, Jokinen ibilbidea markatu zuen. Mendian, igandeetan, borda batean hitzaldiak hartzen hasi ziren, beraiek baino jantziagoa zen kideren batek emanda. Laster hasi zen ekintza txikietan, brotxa eta baldea hartu eta hormak margotzen, ikurrinak zintzilikatzen, elizen atarietan «*Caidos por Dios y por España*» zioten plakak puskatzen eta abar.

Askotan kontatu izan zidan garai hartako pasarte bat: gauzez egin behar izaten ziren isilpeko lan haiek, noski, eta etxeratzerakoan kontu handiz gordetzen omen zituen horretarako ibilitako arropak. Ama, ordea, ondo konturatuta zegoen zerbaitetan bazebilela semea, zehazki zertan ez bazekien ere.

Zoritxarrez, ama bakarrik ez, auzoko *fatxa* ezagun bat ere bai, eta gau baten etxeko eskailerak igotzen ari zela, hara non agertu zitzaion bigarren solairutik hirugarrenerako bidean, marmarrean: «*Joakintxo, ya le voy a contar a la Kontxita [Jokinen ama] dónde andas*». Jokinek hanketatik hartu, buruz behera jarri eskaileretako zuloan, eta esan omen zion: «*Como voyas a decirle algo a mi ama no cuentas más porque te tiro por aquí*». Lantokian, lurretik 100 kilo baino gehiagoko piezak altxatzen omen zituen eta, beraz, erraz altxatu eta jarriko zuen buruz behera gizontxo hura.

Esan dut hamahiru urterekin metalurgia-mutil edo aprendiz sartu zela EMUAn. Hogeita bat urterekin, berriz, sindikatuekin lotura lanak egiteko aukeratu zuten lankideek. CCOOren sorreran ere parte hartu zuen, Tolosaldeko langileriarekin harreman estuan.

1966ko hauteskunde sindikaletan, Tolosako metal arloko langileek eta patronalak osatutako Gizarte Batzordean partaide izendatu zuten eta, berehala, Tolosaldeko Metal Sindikatuko presidente izateko proposatu zuten.

Jokinek ez zuen kargu hura hartu nahi, bere iritziz *Sindicato Vertical*-a bultzatzea zelako, baina, aurkezpen-epea bukatu baino ordubete lehenago, ETA erakundearen oharra jaso zuen, aurkeztu egin behar zuela esanez.

«Orduan, oraindik ETA ez zegoen erakunde sozialista bezala definiturik, baina ekintzaileen artean bazen arazo sozialaren kontzientzia, langile-klasekoak baikinen gehienok», adierazi zuen elkarrizketa batean.

## **Familia abertzalea**

Jokinek niretzat izan behar zuela pentsatu nuenerako, 24 urtera nindoan. Ordura arte, ni ere ez nintzen aulkian eseri eta gitarra jotzen egona. Ez zen kasualitatea izan Jokin eta biok ETA erakundearen baitako zereginetan elkar ezagutu izana.

Aita eta ama, familia osoa, abertzalea dut. Baserritik datorrit niri ere jatorria, nahiz gaztetatik gurasoak baserritik kalera joan ziren lanera. Aita 1936ko gerran aritu zen, Donostiatik atera zen Eusko Abertzale Ekintzaren Eusko Indarra gudarostean. Eta Santoñan harrapatu ondoren Zaragozako *Batallón Disciplinario*-ra eraman zutenean, ama ere hurbil izan zuen, eta hango hotel batean zerbitzari lanean hasi zen, aitaren ondoan izateagatik. Abertzale zintzo eta leiala gure ama ere.

Lau anai-arrebetan zaharrena naiz, eta txikitandik, haurra nintzelarik, bizi izan dut Euskal Herriarekiko maitasuna. Etxeko hizkuntza euskara soilik izan da gurean, leihoak itxita badaezpada ere. Eskolan, gaztelera, eta bestela, zumea. Irratian, albistegietako *parte*-a entzun aurretik eta ondoren, *txunpa txunpa tatxunpa txunpa txunpa txunpatapatxun* jotzen hasten zenean, gure etxean irratiko botoiari klik egin eta itzali egiten genuen beti.

Mojek ez zuten lortu nik besoa altxatzerik *Cara al sol* kantatu behar genuen bakoitzean. Kopeta ilun jarri, parenten kontra besoak ezkutatu nahirik, eta abesten nuen itxurara egin. Hortik ez nintzen pasatu!

Ez dut sekula santan behar bezala irakurri *On Kixote*, eta are gutxiago maitatu, mojek behartuta entzunarazi eta irakurrarazi egin zidatelako urteetan. Gorroto dudala esan behar dut, egia esan behar badut.



Gure ama beti kezkatu izan da seme-alabek ikas zezaten beraiek ikasi ezin izan zutena, nahiz ezinbestekoa suertatu zen oso umetatik, 11-12 urterekin, nire ikasketak lanarekin tartekatu behar izatea, garai haietako beharrari eta ohiturari jarraituz. Ahizpek ere gauza bera egingo zuten gero.

Jokinek ugazabarentzat lan egin behar izaten zuen, eta nik, aitarentzat egiten nuen, etxerako. Gogor, baina etxerako.

Neuk ere, Jokinen antzera, Komertzioa hasi nuen, baina bukatu gabe utzi behar izan nuen Kontabilitatea ikasteko. Amak, ordea, musika ikasketak egitera bultzatu ninduen mojak kenduta Deban zegoen irakasle bakarrarekin. Eskerrak hari, Donostiako Kontserbatorioan 18 edo 19 urterekin bukatu nuen piano *karrera*, eta geroztik musika izan da eta da nire bizitzaren parte garrantzitsuetakoa.

Piano ikasketak bukatu ondoren, titulua ateratzeko ezinbestekoa zen zenbait baldintza betetzea, batez ere etxeoak alde zuzenetik abertzale bezala *fitxatuta* baldin bazen. Ikastaro gisakoa egin behar zen FET eta JONSekin, *Falange Española Tradicionalista* eta *Juntas Ofensivas Nacional Sindicalistas* delakoekin. Frankismoa sostengatzen zuten erakundeak ziren biak. Beraz, nire titulua jasotzeko Falangetako 27 puntu ikasi eta haiei buruzko azterketa egin behar nuen Donostiako Prim kalean zuten egoitzan, «tribunala» deitzen ziotenaren aurrean. Oker ez banago, gaur egun PSOEn egoitza da hura. Azterketa egitera, gainera, haur jaioberrien arroparekin hornitutako saskiarekin joan behar izaten zen, eta gero, saski haiek banatzen zituzten Falangetakoek Francoren izenean, haurrak izan zituzten familia behartsuetan.

Hau guztia azaldu ondoren, pentsatuko duzue Itziarrek ez zuela titulurik atera orduan. Ondo pentsatuta, bada. Dena dela, 1978an, Jokin eta biok kalean geundela eskuratu nuen, Jokinek emandako *pelmadari* esker. Ni ez nintzen gogoratu ere egiten, eta Jokin, beti bezala: «Nork daki beharko dugun ala ez; eta, gainera, zeuk egindako ikasketen titulua da». Azkenean, Donostiako Kontserba-

torioan jaso nuen titulua, Borboiaren sinadurarekin, Francorenarekin beharrean. Guretzat, ordea, antzeko sinadura zen, Borboia Francok hezitakoa baitzen haren lanari jarraizekion, haren seme putatiboa.

Harrotasun punttu batekin esan dezaket Jokinek nirekin ikasi zuela musika maitatzen eta musikarekin gozatzen. Gurasoen etxean dagoen pianoari buruz zerbait baino gehiago esan eta idatzi izan da. Egia da hainbat kontu, baina ez egia osoa.

Piano horretan, 1968an dirua biltzeko Eibarren egin-dako *requisa* baten dirua gorde nuen, eta hori neuk bakarririk nekien. Handik urte askotara, oraintsu, kontu kontari aipatu nuen, nonbait, lagun minen artean –akats handia nirea–, eta Idigorasek baita gogoan ederki hartu ere! Ordudanik, piano barruan hainbat gauza egon ziren, *pipak* edo pistolak, *gitarrak* edo metralletak, *xoxa* edo dirua, *txorizoa* edo dinamita eta Jonek nahi izan zuen guztia. Jokini *Beethoven* deitzen zion, baina ez soilik pianoaren aferagatik, berak ez baitzekien ezer, Jokinek entzungor egiten ziolako baizik entzun nahi ez zuenari.

Euskara eta kultura inguruko lanetan ibili izan naiz beti gaztarooan. Zazpi urtetik hogeitau urte inguru arte, Tene Mujikarekin, Juan Jose Lete idazle soraluzetarrarekin eta gero Iñaki haren semearekin olerkiak eta antzerkia ikasi eta egin nituen. Eli Gallastegik sortutako Emakume Aberztaleen Batzako arduradun zen Tene Mujika Gipuzkoan, eta Nafarroan egon zen desterraturik. Teneren sukaldean, porru patatak –ez zait sekula ahazten orduko usain hurasutan egiten ziren bitartean, azal beltzeko idaztiño batean euskarazko lehen hizkiak erakutsi zizkidan, eta euskara zaharrean idazten ere bai. Nemesio Etxaniz ere ezagutu nuen: *Poxpolin* eta *Teatrox* deitzen ninduen.

Euskal Herriko lehenengoetako ikastola izan zen Debakoa, eta haren sorreran parte hartu nuen, eta baita bertako musika irakasle izan ere. Gau-eskoletako andereñoa ere bai, eskolatu gabea izan arren. Horrelakoak ziren orduko andereñoak, borondatea galanki eta etxeko euskara hitzetik hortzera, patrika hutsik, baina pozik!

## Euskal jaiak

OARGUI –*Organización Artística Recreativa de Guipúzcoa*– taldeko kide nintzen Deban, eta idazkari lanak egiten nituen. Talde honek antolatu zituen 1964, 1965 eta 1966ko euskal jaiak. Gerra ondorengo euskal jai garrantzitsuenak eta bakarrak, esango nuke, Deban antolatu genituenak.

Euskal Herri osotik etorri ziren hiru urtean jarraian maiatzaren hirugarren igandean ehunka dantza talde, txistulari talde, albokariak, gaita joleak eta dultzaineroak, abesbatzak, koroak, bertsolariak eta jota abeslariak. Zuberetatik Tuteraraino eta Enkarterritik Miarritzeraino, euskal talde handiek eta txikiek parte hartu zuten bi alditan, hirugarrena debekatu egin baitzuten.

Horretarako, Oargui Taldeak gogor egiten zuen lan urte osoan. Debako abertzale orok ematen zuen dirua horretarako prestatutako kartazaletan, eta abertzaleak izan gabe dirua eman zutenak ere ezagutu nituen. Debako herriak parte-hartze zuzena zuen euskal jai egunean, eta aurrekoetan ere bai, prestakuntza lanetan. Abertzale sentimendua nabarmena zen, nahiz euskara aldetik oso herren ibili den beti.

Giroa aparta zen euskal jaietan: multzo handietan euskaraz hitz egiten entzuten zen kalean barrena, gerra ostean lehen aldiz eta beldurrik gabe. Bertsolariak kantari aritzen ziren plazaren erdian, eta euskal dantza taldeen arropa koloretsuek begiak betetzen zizkiguten. Ahots ederrak entzuten genituen eta musika paregabea genuen egun osoan zehar. Albokaren, txistuaren eta dultzainaren doinuek alaitzen zituzten abertzaleen bihotzak.

Debako zumardiak duen kioskoaren aurrean dantza talde guztiek ezpata-dantza egiten zuten batera, eta neskek zinta edo xingola dantza. Nolako edertasuna garai haietarako, eta ikurrina han agertzen zen denen artean, txalo, oihu eta negar artean. Francok oraindik beste hamaika urte iraungo zuen euskaldunak desagerrarazteko lanetan.

Deban biltzen ginen abertzaleak, zazpi probintziatik eta toki urrunenetik etorrita, elkarrekin gozatzeko. Batzuk trenean, besteak autobusean eta asko oinez iristen

ziren. Horietako bat zen Jokin. Tolosatik mendiz mendi, Oriotik barrena, eta handik Debara.

Jokin ETA erakundean sartuta zebilen ordurako. Ni ere laster hasiko nintzen lan txikietan. Baina euskal jaiak egin ahal izan genituen bi urteetan ez nuen Jokin ezagutu. Egun haietan, nahikoa nuen aurkezpen lanetan eta gainerakoetan.

ETA izan zen, euskal jaiak zuten garrantzia ikusita, Debarako deia egin zuen erakunde bakarra. *La Voz de España* egunkariak, 1964an 15.000-20.000 lagun bildu ginela esan zuen. Eta hori kontuan izanda EAJk eta EGiko sektoreek euskal jaiak boikot aktiboa egin zietela. Deban bizi izan zen giroaren berri 1964ko maiatzaren 30eko *Zutik!* aldizkariak jasotzen du, guztiz abertzalea zela esanez eta hiruzpalau urte lehenago pentsaezina: *Eusko gudariak* abestuz, «Gora Euskadi Askatuta!» oihuak nonahi, baita bozgorailuetatik ere. Guardia zibil ugari jakarik gabe jendartean, baina jendeak beldurrari aurre egin, eta txapelokerrek alde egin behar izan zuten.

*Zutik!* hartan aipatzen da, halaber, Euskal Herriko gazteriak, oro har, beldurra galdu zuela eta prest zegoela manifestazioetara agertzeko. Eta bilkura haiek gero eta politikoagoak izan behar zutela, eta beste pauso bat eman independentzia politikarantz eta iraultza sozialerantz.

Hirugarren urtean ez zen euskal jairik izango. Debako alkatearen eskutik debekua jaso genuen, Garcia Remon gobernadore zibilak ezarria. Garai hartan, Debako alkatea militarra zen, baina euskal jaien antolaketarako inolako eragozpenik ez zigen jarri, azken aldi hartan izan ezik, debekua zela medio. Baina denborarik ez genuenez etorri behar zuten talde guztiakin harremanetan jartzeko, ahaleginduko ginela esan eta bere horretan utzi genuen deialdia.

1966ko maiatzaren hirugarren igandea heldu zenean, Debak herri hila zirudien. Sarrera guztiak, errepide, itsaso eta mendi, guardia zibilez josita zeuden, eta kaleak ere hartu zituzten. Oargui taldeko kideak, irratia entzun, telefonoz ahal zena jakin eta horrela egon ginen egunean

zehar. Beren etxeetatik irtendako milaka abertzale eta euskaldunek, ordea, bakoitzak bere aldetik bi lekutara jo zuen nagusiki. Batetik, Ondarroara, ETak hara joateko ere deialdia egin baitzuen. Bestetik, hara sartu ezinda geratu ziren askok Eibarrera joan ziren. Ahoz aho berehala zabaldu zen pilota partida jokatzeko ari zirela, eta bere burua erregegai ikusten zuen Carlos Hugo printze karlista han zegoela. Horrela, *printzea* pilota partida amaitu eta autoan zihoala harrapatu zuen jendeak, eta astindu batzuk eman zizkioten; estu eta larri ibili zen gizona, eta guardia zibilek salbatu behar izan zuten gorabehera hartatik.

Jokin ere han zen.

Nik, berriz, Guardia Zibilak Deban zuen kuartelera joan behar izan nuen lehen aldiz. Geroago ezagunak bihurtuko ziren leku beldurgarri haietako batera sartu nintzen, eskutitz eta paper guztiekin, nire ustez Euskal Jaiak legezkoa izan behar zuela adierazi eta defendatzera.

Ordu batzuk pasatu ondoren eta idatzitako guztia irakurri ondoren, libre utzi ninduten. Debatik kanpo, zenbait jende atxilotu zuten. Gobernadore zibilak agindutakoa ondo bete zuten: Debara inor ez sartzea, alegia. Bertako zenbait biztanle ere ezin izan zen gaua iritsi arte herrian sartu.

## **Borroka azkartzen doa**

1960tik aurrera, mugimendu sozial eta politikoa handitu eta azkartu egin zen. Grebak, margoketak, panfleto banaketak eta abarrak eguneroko ogi bilakatu ziren. Eferbeszentzia horrek errepresioaren gorakada ekarri zuen. Garaiko gobernadoreek salbuespen egoera ezarri zuten Bizkaian, Gipuzkoan eta Asturiasen.

Egoera latz horretan, apaizak ere atxilotzen hasi ziren. Horiek zuzenean parte hartu zuten tortura eta tratu txarren salaketetan. 339 apaizek eginiko eskutitzak, esaterako, hauts asko harrotu zituen Euskal Herrian, eta Espainian ere bai.

«Justiziaren aurrean amore ematea, haren aurka protestatu gabe, borrokatu gabe, ez da gizakiaren jokabidea,

ezta kristauarena ere». Salieg kardinalaren sarrera hautatu zuten torturaren salaketa egin eta preso zeudenen egoera zein zen jakinarazteko, eta askatasunik ez zegoela azpimarratzeko. Eskutitz horrengatik, zigor gogorrek jaso zituzten, eta beren lanetatik eta parrokiatik alde egin behar izan zuten batek baino gehiagok.

1962an, etakideak lehen aldiz gerra kontseiluan epaitu zituzten, eta lehen estraditatuak ere orduantxe izan ziren. Urte berean, maiatzean, ETAk bere Lehen Biltzar Nagusia edo Asanblada egin zuen. Biltzarrak sortutako testuen artean *Principios* izenarekin zabaldu zena dago, eta honela dio: «ETA, Herri Askapenerako Euskal Mugimendu bat da, abertzaleen erresistentzian sortua, eta independentea, alderdi, organizazio edo erakunde guztietatik».

Mugimendu honen baitan, 1965, 1966 eta 1967 urteetan, ETako militanteak inurrien antzera genbiltzan, Euskal Herri osoan: batzuk tentsio handiko kableetan ikurrinak zintzilikatzen, guardia zibilek kentzeko zailtasunak izan zituzaten. Beste batzuk, ikurrinetan dinamita paketetxoak zintzilikatzen. Beste batzuk, bateko eta besteko hormetan ETA hizkiak nonahi pintatzen. ETaren *Zutik!* aldizkaria ere zabaltzen genuen, etxe eta elizetako atarietan, zumardi edo pasealeku nagusietan, futbol zelaietan. Eta Espainiaren alde hildako euskal herritarren izenen plakak txikitzea ere ohikoa zen orduan, baita elizan bertan ere. Eskola sozialak eta gau-eskolak antolatzen eta zabaltzen laguntzen genuen, eta Erakundeak deitutako Aberri Egunetan eta Maiatzaren Lehenetan parte hartzen genuen ere.

1961ean, Francok 25 urte bete zituen Espainiako estatu-buru bezala. Hori zela eta, kartelak atera zituen «25 años de PAZ» leloarekin, eta horma guztietan itsatsi zituzten. Luze gabe, PAZ-en ondoan CIENCIA hizkiak agertu ziren eskuz edo brotxaz idatzita. Jendearen irudimena bizirik zegoen.

## **Aberri egunak**

1964a baino lehen, Aberri Egunak ez ziren bateratuak. EAJk bazkaritara deitzen zuen, eta ETAk Urbiara, eta

1963an baita Itsasura ere. 1964ko Aberri Eguna garrantzi handikoa izan zen, gerra osteko lehen Aberri Egun bate-ratua izan zelako.

1965ean Bergaran ospatzekoa zen Aberri Eguna, bai-na gehientsuenak inguruko mendietan geratu ginen. Jokin ere antzera ibili zen, geroago esan zidan bezala. 1966an ETAk Iruñeko Aberri Eguna borroka egun izan zedila aldarrikatu zuen, «Aberri Libre batean gizon eta emakume li-break izan gaitezen». Orduan ere Jokin eta biok bakoitza geure aldetik joan ginen.

Gerra psikologikoa orduan hasi zuen Poliziak, Iruñeko ekitaldien inguruan. Aurreko egunetan txapelokerren kontrol handiak izan ziren Iruñea osoa inguratuz. Eskutitzak ere argitaratu ziren hurrengo egunetan, *abertzaleek* bidalita, Aberri Egunean *bas-koei* egin zitzairen harrerarekin nazkatuta. Enfrentamendu bila, noski. Aurreko bi egunetan atxiloteta ugari izan zen, eta Aberri Egunean bertan ia 400 lagun atxilotu zituztela diote orduko kronikak.

1967an, Gasteizen eta Irun-Hendaian ospatu zen Aberri Eguna. Jokinek ez zuen agertzerik izan, ETArekin V. Biltzar Nagusian zegoelako. Nik, berriz, trena hartu nuen Donostiara, eta han geratu behar izan nuen Irunera *topo*-an abiatu ezinik. Donostiako nasetan ez baitzuten uzten trenik hartzen. Gerora jakin genuen Irunerako sarrera guztiak itxita zeudela, eta atxilotuen artean tiroz zaurituriko bi lagun zeudela.

1968ko Aberri Eguna ere, beste guztiak bezala, debekatu egin zuten. Donostiako kaleak *grisez* josita zeuden, eta kale batetik bestera multzo txikietan bildurik independentziaren eta ikurrinaren aldeko oihuak eginez eta askatasuna exijituz aritu zen jendea. Han ibili nintzen Easo eta Urbieta kaleen artean, batetik bestera korrika, zaldien hanken azpian erortzeko beldurrez. Kanikei esker, zaldiak lurrera erortzen ziren militar eta guzti. Eta hanka arinak behar haiek pistola ateratzerako urrundu eta tiroek harrapa ez gintzaten.

Ordurako Jokin gordeta zegoen, ondo gordeta, bere lanetan, sasian, aurreko urteko udazkenetik.

Maiatzaren Lehena iristean, Donostiara joaten ginen, baina Eibar, Iruñea eta Tuteran ere ospatzen zen langileen eguna. Donostian, musika kioskoaren ingurura banaka joan, elkarki ondo begiratu badaezpada, eta ohitura zaharrek agintzen zuen bezala, besapean egunkariren bat zeramana, ondo, gurea zen, eta ez bazuen deus, haren ondotik alde, txakurra izan zitekeelako. Zenbat belarri-luze sartu ote zituen bilkura haietan eta antzekoetan Meliton Manzanas torturatzaille ezagunak?!

Bada, eguerdiko musika saioa bukatzen zenean, oihuka hasten ginen, eta kioskoari bueltaka. Betiere denbora gutxi genuen, laster eta lasterka agertzen baitziren *grisak*, eta korrika batean Alde Zaharrera sartu, eta suertea izanez gero, bi elizetako baten barruan gorde, handik ateratzen ausartu arte...

Suerteari edota abileziari esker, batzuk ez gintuzten sekula atxilotu, kolpe batzuk hartu arren. Horien artean geunden Jokin eta biok.

## **ETAren V. Biltzarra**

Gizartean azkartzen zihoan mugimendua, eta ETAK horretan zeukan eraginak tentsioa sortu zuen erakundearen baitan zeuden sektoreen artean. Tentsio hori, azkenean, ETAren V. Biltzarrean askatu zen. Biltzar horrek, Jokin eta bion ustez, berebiziko garrantzia izan zuen Ezker abertzalearen historian.

Biltzarraren lehen zatia 1966ko abenduan egin zen, Gipuzkoan, Gazteluko erretore etxean. 1966ko iraila eta urria bitartean ETAren Bulego Politikoak V. Biltzarrerako txostena egin zuen: *Por una izquierda socialista revolucionaria vasca*. Patxi Iturrioz, Eugenio del Rio eta beste zenbaitek idatzitakoa zen txostena –Biltzarra burutu baino lehen kanporatuak izan ziren– eta, azkenean, txostena Biltzarrean irakurri ere ez zen egin.

ETAK beti garbi utzi izan zuen ordura arte ez zuela alderdi politiko baten tokia hartuko, eta ez zela alderdi politiko bihurtuko. Mugimendu askoz ere zabalagoa nahi zuen izan Euskal Herriaren askatasun nazional eta soziala bide-



ratzeko. Nabarmena zen Bulego Politikoak alderdi iraultzaile berri baterantz abiatu nahi zuela, eta, aldi berean, urruntzen zihoala ETaren oinarri sortzaileetatik. Arestian aipaturiko Iturrioz, Del Rio eta gainerakoek zera nahi zuten, talde sozialista guztiek, ETak barne, proletargoaren abangoardiaren ideia baztertzea, iraultza sozialista espainiar bakar baten zerbitzura jartzeko, CCOOren zuzendaritzapean.

Azkenean, Biltzarrean soilik bi txosten eztabaidatu ziren: batetik, *Txatarra txostena* bezala ezagun izango zena, Jose Antonio Etxebarrietak idatzia: "Análisis y crítica del españolismo social-chovinista". Bulego Politikoari egiten zitzaion kritikaren oinarriak ziren, baita aurrera begirako estrategiaren ildoak ere. Estrategikoki, etorkizunean euskal iraultzaren faseren batean euskal burgesiaren hainbat sektoreekin aliantzak ez ziren baztertzen, adibidez. Bestetik, *Txosten berdea*, paperaren koloreagatik, Krutwig, Madariaga, Eskubi, Bareño, Bilbao Barrena, Azurmendi, *Txato* Agirre eta bestek idatzia. Txosten horrek, populismo nabariak, besteak beste adar militarra desager zedila eskatzen zuen, eta ekintza militarretarako soilik prestatutako lagunik ez egotea. Zatiketa arriskuaren aurrean Bareño eta Eskubik *Txosten berde berrikusia* defendatu zuten, baina Biltzarrean zeuden militante gehienek horren berri ez zuten, baztertua izan zen.

Josean Etxebarrietaren txostena oso zorrotza zen Eugenio Del Rio eta Patxi Iturriozekin, eta haiena tesi likidatzailea zela argi argudiatu zuen bere lanean. Orduetik aurrera, *likiak* deituak izango ziren talde horretakoak. «Abangoardia ez da mugatu behar herria, une jakin batean, onartzeko prest dagoena egitera, abangoardiak aurretik joan behar du, adorez segidako urratsak markatuz», zioen Etxebarrietak txosten hartan.

2004an elkarrizketa batean Jokinek hau zioen V. Biltzarraren inguruan: «1967. urtean, ETaren V. Biltzarraren II. zatian parte hartzeko ordezkari izendatu ninduten, eta batzar horrek, nire ustez, berebiziko garrantzia izan du Euskal Nazioaren Askapenerako Mugimenduaren historiako iraganean, bai eta orainean ere, izan ere, borrokan jauzi kualitatibo eta kuantitatiboa gertatu zen».

EAJren nazionalismo burgesaren aurrean, nazionalismo iraultzailearen aldeko hautua egin zen, eta, hainbat molde sabindar hautsi ziren. Esate baterako, euskal herritarra honela definitu zuten: «lan-indarra Euskal Herrian saldu eta haren nazio eremuan bizi dena».

Teoria iraultzailea osatzeko, dualtasun faltsu hau hartu zen oinarri: «askapen nazionala-askapen soziala». ETAK herri askapenerako euskal mugimendu sozialistatzat zuen bere burua eta, hortaz, langileek izan behar zuten subjektu nagusi, horiek osatzen zutelako gehiengoaren klasea, klaserik zapalduena. Ezin zen askapen nazionalik izan askapen sozialik gabe, ezta alderantziz ere, txanpon bakarraren bi alderdiak baitira biak.

Aurreko hori guztia gauzatuz, eta Krutwig-en apunteei jarraiki –Truong-Ching-engandik beretu zituen– lau fronte sortu ziren ETArekin baitan: kulturala, politikoa, sozio-ekonomikoa eta militarra.

V. Biltzarrean parte hartu zutenen artean, Etxebarrieta anaien –Jose Antonio eta Txabi– eta Krutwig eta Eskubiren ekarri garrantzitsuak nabarmendu ziren. Txabi Etxebarrietak sortu zuen Euskal Herri Langilea terminoa. Haren anaia Jose Antoniok Biltzarrean egoterik izan ez bazuen ere –ibiltzeko makuluen beharra zeukan, gaixotasun larri bat zela medio–, ekarpen teoriko garrantzitsuak egin zituen.

Aurrekoen beste muturrean, bere burua «sozialista humanista» izendatzen zuen taldeko lau kideen jarrera negargarria aipatuko nuke. Biltzarra amaitu zelarik, *El Diario Vasco* eta *La Voz de España* egunkarietan komunikatu bat argitaratu zuen talde horrek, ETARI organizazio marxistaleninista bilakatu izana leporatuz. Laster utzi zuen Erakundea lau kideko talde horrek.

Ezkerreko mugimendu abertzalea izanik, jakin-min handia pizten zuten ETArekin baitan Kuba, Aljeria, Vietnam, Txina eta antzeko herrietako prozesu iraultzaileek. Frantziako 68ko Maiatzaren urteak ziren, mundu osoan aztoramen handia zen, eta ikasleek asko irakurtzen zuten. Baita ikasleak ez ginenok ere, horrela, geure buruak presatuta, Euskal Herriko auziari ekarpen hobeak egiteko. In-

teres handiarekin jarraitzen genituen langile mugimenduaren inguruan gertatzen ziren aurrerapenak eta herrien askapenen inguruko prozesuak. Kubako Iraultza, Aljeriako Iraultza, Txinako Iraultza, Errusiako Iraultza eta abarren inguruko liburuak izaten genituen ohe ondoan irakurgai.

Biltzar Nagusiko planteamendu ororekin bat egiten zuen Jokinek. ETAn sartzera zerk bultzatu zuen galdetzen ziotenean, argi zeukan erantzuna: ETA zela katakonbetatik kanpora ausartzen zen erakunde bakarra. Kontu berbera pentsatzen nuen neuk ere. Horregatik biok bat egin genuen 1967tik aurrera.

«Egun haietan Euskal herrian bi alderdi politiko zeuden. Bata, teoria hutsean, katakonbetan gordea, EAJ, eta bestea, praktikan, erreala, Euskadi Ta Askatasuna, ETA. Hau gure herriko problematikari erantzuten saiatzen zen, eta kontuan harturik hau honela zela, hasten naiz erakunde honetan militatzen», dio 1994an Debako *Tarinena* aldizkarian. «Non zeuden orduan beren burua frankismoaren kontrako borrokalaritzat duten sigla guztiak? Gainera, giro abertzalearekin eta langile mugimenduarekin nuen harreman zuzen hari esker, goiz jabetu ahal izan nintzen gure herriak era berean jasaten duen nazio eta klase zapalkuntza».

Ezin aipatu gabe utzi V. Biltzar Nagusia egin baino lehen, beste erabaki garrantzitsu bat ere hartu zela: «Biltzarreko hizkuntza ofiziala euskara izango da. Hortaz, desberdintasunik balego, baliodun testuak Euskal Herriko hizkuntzan idatzitakoak izango dira. Biltzarkideek ongien dakiten hizkuntza erabiliko dute. Itzultzaile ofizialak izendatzen dira». Adierazpen honek, niretzat, ETAn lan egiteko zerikusi handia izan zuen hasiera-hasieratik, ETAK euskararekin zeukan kezka eta konpromisoa. Ordura arteko erakunde historikoetan sekula ikusi gabea zen hori.

ETAK zioen estrategiaren abangoardiaren parte izan behar duela euskarak. «Euskarak izan behar du Euskal Herriaren adierazpenerako eta sorkuntzarako tresna». Euskara, proiektu nazionalaren ardatz.

Jokinek, V. Biltzar Nagusira joateko, ezinbesteko izan zuen lantokian astebetetz jai eskatzea, EMUAn, soldatetik kentzeko esanda, baina ez zioten inondik inora ere jai egiteko baimenik eman. Orduan, zor ziotena kitatzeko esan zion nagusiari, eta arrebarekin etxera bidaltzeko –lantegi berean egiten zuen lan–, eta betiko alde egin zuen lantoki hartatik.

Jokin *legala* zenez, V. Biltzarra egin behar zen tokira joateko segurtasun neurriak hartu zituzten kideek. Besteak beste, begiak estalita eraman zuten biltzarra egitekoa zen tokira heldu arte. Heldu ziren, eta hara non, leihotik zer ikusiko, eta Getariako sagua! Izan ere, V. Biltzarren II. zatia, jesuitek Getarian zuten gogoeta-etxean egin zuten. Gaur egun Balentziaga Museoa den eraikin horretan.

Biltzarra bukatu ondoren, bera baino zaharragoa zen lagun batengana jo zuen, abertzale fina zela bazekielako, lana bilatuko zion itxaropenarekin. Baita lortu ere lagunak, eta gustura hasi zen lantegi berrian. Ez zen izan denbora luzerako, ordea. Sei hilabete besterik ez ziren igaroko V. Biltzarretik Urkizuko ihesaldira.

## Urkizuko ihesaldia

«Orduan, jada, buru-belarri sartu nintzen Erakundean. Erdi-liberatu hasi nintzen. Konfiantza handia nuenez nire lantegi berriko nagusiekin, erraz irteten nintzen lanetik, irteten beharra nuenean. *Zutik!* eta zuzendaritzatik iristen zen propaganda zabaldu, multikopistak jarri apaiz-etxeetan eta ahal zen lekuan, diru laguntza eskatu... Liberatuekin harreman estuan aritzen nintzen, baina ni neu *legala* nintzen oraindik eta, beraz, lantegian lan egiten eta etxean lo egiten jarraitzen nuen».

Lan horietako bat egiten ari zela utziko zuen betiko lan *legala*. Urkizun gertatu zen, mendian dagoen Tolosako auzo batean. Harrezkero, klandestinitatean egin behar izango zuen lan, Erakundeak agindu bezala.

Zazpi euskal mendizale Andeetara igo ziren garai hartan, antza denez beste inork ordura arte zapaldu gabeko tontorretara, eta Espainiako kirol agintariek dominak eman

zizkieten, haien ausardiarengatik. Handik egun batzuetara, ordea, zazpi mendizale haiek tontor bakoitzean ikurrinak jarri zituztela jakin zen, eta berehala atxilotu eta auzipetu egin zituzten. Gertakari haien harira, ETAk esku-orriak ateratzea erabaki zuen, eta haiek egitera abiatu zen mendira Jokin beste kide batekin, Jokin Aranalderekin.

«Santa Zezilia eguna zen, azaroaren 22a, eta Urkizuko apaizaren etxera gindoazen beste kide bat eta biok. Propaganda multikopiatzera gindoazen, mendizale batzuk atxilotu zituztelako, Andeetan ikurrina ipintzearren. Igan-de hartan Tolosan manifestatzeko deia zabaldu nahi genuen. Goizean alokatutako autoa eliza ondoan utzi eta apaiz-etxera jo genuen, beraz. Baina atarian bi tipo zeuden, ehiza-arropaz eta eskopetekin. Segituan ezagutu nuen Panizo kaboak kaleko jantzia, urteetara Erakundeak hilko zuena, Asteasuko zinpeko guarda zela. Dokumentazioa eskatu zigun batek eta autoa begiratzan hasi zen beste. “*Aquí no hay nada*”. Baina elkarri keinu eginez zioten hori, gu lasai gintezen, muturren aurrean baitzeuzkaten matrikula faltsuak. Ikusi nuen Panizoren laguna telefonoz hots egitera zihoala, autorik ez baitzeuzkaten, eta kaboak, entretenitzen ninduen bitartean esan zidan, gatzeleraz:

–*Yo a Vd. le conozco.*

–Nola ez, bada, pare-parean bizi gara eta –esan nion nik–. Orain presaka nabil, utzidazu joaten eta aurkeztuko naiz eguerdian.

–Segituan konponduko da. Tramite hutsa besterik ez da –Panizok.

–Kafe bat hartzen utziko diguzu, horratio, gosaldutxeko gabe gaude eta –esan nion geroxeago, aldamenean zegoen Urkizuko tabernara joateko. Urkizu ondo ezagutzen bainuen, aita Urkizun jaioa genuelako–.

–Ez da beharrezkoa. Badaukat hemen zerbait gosaltzeko –ihardetsi zidan–, galleta tartean irasagar oreka ateratu zuten poltsikotik, eta jateko eman zidan.

Neure burua galduta ikusten nuenez, konfiantza ematera jokatu nuen, zigarroa eskainiz, elkarrizketari eutsiz... motor zarata entzun nuen arte errepidean gora. “Hemen

duk *jeep-a*", pentsatu nuen, alde egiteko keinu eginez lagunari, baina ezetz adierazi zidan hark apendizetik operatu berria baitzegoen. Ihes egitea buruan nuenez, jauzi egin eta arrapaladan hasi nintzen mendian behera. "*¡Alto o disparo!*", oihuka entzuten nuen Panizo. "*Dispara si puedes*", nioen nire golgorako, arrapaladan nindoan bitartean. Trokan jauzi eginez, zilipurdika, eta ordekan korrika, zuzen jo nuen aurrera, belaze batean Mobilette bat begiz jo nuen arte. Behin baino gehiagotan esan dit motoaren jabeak "hik motoa eraman hidan". Ez nekien Mobiletteak non zuen galga, freno, eta errepidean behera abiada handia hartu nuen batean, gelditzeko, mendiaren kontra jo eta hatz txikia hautsi nuen. Mobilettea han utzi eta errepidean nindoala, gorputz guztia kolpaturik sentitzen nuela, harrobi batean moto bat ikusi nuen. Zoritxarrez, ordea, hura ere Mobilettea zen, eta inguruan ikusi nuen gizon bati galdetu nion nola balaztatzen zuen. "Pedalekin atzera eginez", erantzun zidan, eta ziztu bizian abiatu nintzen Legorretarantz.

Han apaizaren etxera jo nuen, agindu hura baikenuen, baina ez nuen aurkitu, eta lagun baten etxera joan eta haren amari guztia kontatu nion. Jaten eman zidan, arropa eta dirua ere bai, eta Donostiarantz abiatu nintzen».

Handik, Pasai Donibaneraino norbaitek eraman zuen Jokin, ez baitzen gauza pausorik emateko ere. Berak esan zidan behin baino gehiagotan, han apezpiku ohiaren etxean egon zela astebete, etzanda, mugitzeko ere gauza ez zela ia. Egunean behin etortzen zitzaion norbait janariarekin eta ukendu batekin, gorputz ubeldu hartan eman zezan. Han lortu zuen Erakundearekin harremanetan jartzea, eta gogoan dut adiskide batek Zarautzen zuen lantoki gaineko logelaren batean bukatu zuela, Erakundeak zer egin behar zuen esan arte. Ondorengo liberatzea izan zen, Erakundeak eskatuta, bere onespenerekin, noski.

Garai hartan, bada, Jokin ETA erakundeko liberatua izatera pasatu zen, dedikazio osoarekin. Ordurako Guardia Zibilak fitxaturik zuen. Eta Txabi Etxebarrieta eta biak Gipuzkoako herrialdean lanean jarri zituen Erakundeak.

1967ko azaroaren 22an, Santa Zezilia egunean, atera zen Jokin jaiotetxetik, betiko. Ez zen sekula gehiago itzuliko.

Urte hartan, Euskal Herrian langileriak bizi zuen egoera ederki islatu zuen *Laminación de Bandas* lantegiko grebak. Ia sei hilabete iraun zuen borroka hark, eta benetan bortitza izan zen Poliziaren esku-hartzea. Ehunka atxilotu eta dozenaka deportatu izan ziren, eta argi eta garbi geratu zen, ageri-agerian, Gobernuaren eta oligarkiaren arteko lotura. Ondoren, 1967 hartan, Salbuespen egoera ezarri zuen Francok Bizkaian.

Jokin eta biok, gutxi gorabehera, urtebete lehentxeago ezagutu genuen elkar, Urbiako BAI –Batasuna, Askatasuna, Indarra– kontzentrazioan. Nahiko jendetsua izan arren, eta txapelokerrak ere han ziren arren, izan genuen elkarri so egin, mokadua eskaini eta hitz batzuk gurutzatzeko aukera. Hitz apurrak izan ziren, eta nire maitearenak «ez molestatu eta eskerrik asko» eta antzekoetatik ez ziren pasatu, eta neuk ere begiratzearekin nahiko nuen, baina ez nituen bere begi handi ederrak, bekainak, ezpain loditxoak eta esku politik ahaztuko, ezta non ezagutu edo ikusi ginen ere, Euskal Herriaren askatasuna aldarrikatzen, alegia. Gerora, 1967an izan genuen harreman gehiago, Jokin liberatua zela.

Garai hartan, astelehenetik larunbatera, aitaren lantokiko kontabilitateaz arduratzen nintzen: gasolindegikoaz eta kafetegikoaz. Musika-eskolak ere ematen nituen ikastolan. Gau-eskolako lanetan ere aritzen nintzen, eta etxean bertan ere pianoa irakasten nion zenbait umeri. Larunbat arratsalde eta igandeetan, berriz, kafetegian aritzen nintzen lanean. Orduan pasatu nintzen Erakundearentzat beste lantxoak egitera: etxeak bilatu, dirua bildu –gehienetan neure poltsikotik jartzen nuen azkenean–, sasikoentzat arropak erosi, liberatuak etxe baten edo bestean banatu, eta enkargu *bereziagoak* egin.

Orduan aurkitu nuen berriro ere Jokin. Oraingoan zart! Lepotik hartu eta «hau, niretzat!» esan nuen. Nire gurasoen etxera eraman nuen eta, besteak beste, hura izan zen bere etxea, elkarrekin atxilotu gintuzten arte.

Ni guztiz *legala* nintzen. Abertzalea bai, baina hori txapelokerrek eta azkeneko txitxiak ere bazekien. Eta nolako gorrotoa nien ere bazekiten. Nire lana kanpora begirakoa zen, eta guztiek zekiten zertan aritzen nintzen. Horregatik iruditu zitzaidan toki ona nire maitearentzat. Egia esan, aurretik beste jende bat ere ibili zen aitaren eta amaren etxean, eta, azkenean, bi kide soilik etortzeko bidea egin zen.

Zoritxarrez, bigarren kide hura 1969ko martxoaren 7an erori zen, baina guk ez genuen jakin, eta hurrengo egunean Jokinen bila etorri ziren Debara.

Jokin beste etxe askotan ere ibiltzen zen, noski, Gipuzkoako zenbait eskualdetako arduradun izan baitzen. Txabi erail ondoren, pentsatu genuen beste kide hark ezagutzen ez zuen tokiren batera joan behar zuela, etxean gelditzea baino hobea zukeelakoan. Bagenekien errepresio bortitza etorriko zela. Jo nuen etxe batera, bestera, eta aitzakia ugarirekin ezetza eman zidaten, eta gurean jarraitu behar izan zuen. Atxilotuta egon zen egunetan, eta gero ere, ezin izan dut hura burutik kendu.

Gogoan dut gure aurretik eroritako kide haren bitxikeria bat: igande arratsaldea zen, eta gora eta behera nengibilen ni. Gurasoen kafetegian behean, eta goian etxeko egongelan Jokinekin solasaldian eta abar... Hitz ederrak, muxu goxoak, etorkizunari so egin nahian.

Halako batean txirrina jo zuten, eta han agertzen da beste kidea, eskuetan plastikozko poltsa bat duela, Jokini hitz eginez: «Begira, Andres, *pipa* garbitzeko askatu egin dut osorik, eta orain muntatzerakoan piezak sobratzen zaizkit». Barre egiteko egoera zen, baina Jokini ez zitzaion hala iruditu, eta nik alde egin nuen, banekien-eta zerbait baino gehiago esango ziola.

## **Txabiren heriotza**

Garai hartan, Txabi eta Jokin elkarrekin ari ziren lanean. «Elkarrekin lan egin genuen Gipuzkoan zortzi hilabetez, eta etxe berean bizi ginen, askotan ohe berean lo



eginez. Ez zait sekula ahaztuko hil zuten eguna. San Martin Loinazko monumentuan genuen zita, 1968ko ekainaren 7 hartan. Donostiatik Beasainera zetorren Txabi, eta Eibartik nindoan ni haren enkontrura, dinamita karga bat autoan neramala. Gobernu Zibilean jartzeko lehergailua, gauean erlojuz leherrarazteko».

Bat-batean, Elgoibarko bidegurutze batean txapelokerrak ikusi zituen Jokinek, autoei alto emanez. Kontrako bidea hartu zuen, debekatutakoa, eta etxe batean gorde zen. Zorionez, hurbil zuen etxe hura. Bertakoek ez zekiten ezer, baina berehala irratiz jakin zuten Tolosan zer bait gertatu zela txapelokerrekin. Hura entzunda, Jokinek berehala jakin zuen gorabehera hark Txabirekin zerikusia zuela.

Kolpe handia izan zen berarentzat, nahiz kanpotik ez zitzaion antzematen, beti izan baitzuen patxada handiko gizonaren planta. «Ez zait sekula ahaztuko egun hura», zioen ordukoa hizpide hartzen zuen bakoitzean. Maitasuna eta begirunea zion Txabiri. Gainera, bazuten antzeko zer bait, irribarre ezti eta intentzioduna, halaxe esango nuke, eta, batez ere, berezko *on aurpegia*. Izan ere, laguna sekula santan salduko ez duten horien jitea sakonetik azalera-tzen zitzaaien aurpegira. Biak zeuden maitemindurik, eta badakit elkarren hainbat kontu esan eta gorde zituztela, hortik aurrerakoa beraientzat geratu zen arren.

Txabi, nire gusturako, eta orduko begiekin ikusita, behintzat, ez zen mutil ederra: erabat argala, aurpegi luzea, bizarra egin gabe oraindik argalago ikusten zen, kolore zurikoa, sudur handi samarrekoa, eta kristal lodiko betaurrekoak behar zituena, miopea zelako. Hala ere, maitagarria zen, edonor bereganatzen zuen lehenbiziko hitzetan. Eta hortik aurrera, berarekin solasaldiren bat izateko suertea izanez gero, zorioneko harekin zegoena. Argia eta buruzagi kastakoa zela askok esan dute, eta egia hutsa da. Oso gaztea izan arren, asko zekien, baita entzuten ere, eta goxoa eta erabat sentibera zen. Besteak beste, idatzi zituen ahapaldiak irakurri besterik ez dago. Ni, behintzat, poema horiekin geratzen naiz.

Oso barruan dudan poema da Txabiren honako hau. Hain gaztea izanik, haren gizatasunaren neurria islatzeko gai da, eta nire kuttuna nirekin ez dagoenetik, asko hunkitzen naute hitz hauek:

*Amor, amor, amor*

*La tenue piel de tu vientre  
y de tus piernas. Enrizó mis dedos,  
acarició tus extensiones  
que, enérgicas, se avalanzan hacia  
un hijo no brotado.*

*Dejarte entre las ingles,  
la concavidad de lo perfecto.*

*Todo lo que en el mundo ha sido  
me lo ofrece la cúpula  
abierta  
de tu carne renacida.*

*Eres volúmen y consistencia*

*Me extendo por tu vientre  
y el esplendor íntegro  
de tu materia viva  
ahita mi boca.*

*Quisiera sepultarme en ti.  
no ser ya.*

*Ir por mis nervios  
al mensaje  
de tu piel, bocarriba  
por mis labios.*

*Madrugada de tu carne imposible.*

*Brigada Político-Social*-eko buru zen Meliton Manzanos torturatzaila hurbiletik jarraitu eta hari buruzko informazioa jasotzea zen Erakundeak emandako lanetako bat, eta horretara etorri zen Txabi Etxebarrieta Gipuzkoara.

Orduko kontua da Txabik Jokini esaten ziona bizarra egiterakoan: ez zuela zalantzarik urtean haur batez erditzea bizarra egitea baino errazagoa zela. Ez zuen batere gustukoa lan hori, eta bizarra ez zuen egunero egiten.

Horrenbeste ordu elkarrekin autoan ibili beharrak esutu egingo zuen bien arteko harremana. Arrisku bizian kontu kontari ez zuten jardungo, adi ere egon beharra baitzegoen, baina lasaitu beharra ere izango zuten behin baino gehiagotan. Horrelakoetan, «*Potxolo, canta las de Antonio Machín*»<sup>1</sup> esaten omen zion Txabik Jokini, eta hara!, honek *Dos gardenias para tí* eta *Angelitos negros* eta beste batzuk ere abesten zituen... Txabik ere jarraitzen zion. Nik ez nuen Txabi kantuan entzun, baina, nire maitearen arabera, oso belarri txarrekoa zen. Jokinek, berriz, egundoko grazia zuen Machinen kantuak abesten, ematen zion karentziarekin. Algara ederrak egindakoa naiz ni horren harira, baina gaizki ez zituela abesten ere aitortu behar dut. Hain gaztea izanik guretzat nahiko zaharrak ziren abesti haiek ezagutzeak harritzen ninduen. Tolosan abesten zirela erantzun zidan behin, eta kito!

*Apopilo* zeuden etxeko jabeak, bikote bat, zinemara joan zitezen, gauez haur jaioberria zaintzen zuten, biberioia eman, eta segur aski, baita haurrari deabrukeriak egin ere, Jokin ezagututa bederen.

Zehaztasun horiek eta beste hainbat kontu biok kartzelatik atera ondoren jakindakoak dira. Geroago, atxilotu gintuztenean, *Brigada Político-Social* zirelakoan eskuetan –Sainz buru zelarik– Donostiako Gobernu Zibilean 17 egun egon ginenean, Jokinen jarrerari esker ez zen azpiegitaririk erori; beraz, lagun haiek ere ez. Niri zegokidan ardurari dagokionez ere, gauza bera esan behar dut. Beraz, kartzelatik irtetean, lagun eta militante horiek bisitatzera joan ginen, gehienak behintzat, haiei gure esker ona eskaintzera. Zenbait lekutan ospatu ere egin genuen ederki asko.

---

1. «Potxolo, kanta itzazu Antonio Machinenak».

Txabiri buruz askotan entzun izan da izugarri argia zela, goitik beherako intelektualak. Aldiz, ez zela ekintzetarako pertsona. Jokinek, aldiz, garbi zuen eta ozen esaten zuen Txabik prestatuta zuela bere burua edozein lanetarako, eta Guardia Zibilak kontrolean hil zuenean, ziur zegoela Txabik ez zuela zalantzarik izan zer egin, goitik beherako iraultzailea zelako.

Txabi hil eta hamaika urte geroago, Benta Handin egin zitzaion omenaldian bigarren oroitarria jartzerakoan –lehenengoa, ipini eta egun berean gobernadore zibilak kenarazi zuen–, Jokinek hitz egin zuen ekitaldian: «Gudari guztiak, nola atzokoak, hala gaurkoak, enbor bakarraren hainbat une historikotako sustraiak dira, Euskal Herriarenak. Txabi izan zen ETako lehendabiziko hildakoa. 32 urte lehenago, Tolosako seme bat, Mikel Alberdi, erail zuten balek Bidanian, Txabi erori zen lekutik oso hurbil, eta, gure adinekoek diotenez, Mikel izan zen 1936ko gerran Euskadirengatik erori zen lehendabizikoa.

Txabik, hil zenean, 23 urte zituen. Txabi Bilbon jaio zen, eta Euskal Herriko gizon eta emakumerik gehienak bezala, eta herri guztietan gertatu ohi den gisara, biziki maite zuen langile familia batean sortu zen. Hala ere, las-ter, familia utzi behar izan zuen bere jarduna bete-betean Herriari eskaintzeko. Txabi zinez sentibera eta gizatiarra zen. Bere familiaren ahaleginari eta ikasketetarako zuen gaitasun handiari esker, zientzia ekonomikoetan lizen-tziatu ahal izan zuen.

Jose Antoniori buruz Txabik esan ohi zuen, haren bi-dez hasi zela Euskal Herriak pairatzen duen zapalkuntza nazional eta sozialaren berri izaten eta hura ulertzen, eta hark barneratu zuela, azken batean, ETA erakundean.

Txabi abertzalea eta sozialista zen. Ez zen euskaraz mintzatzen, baina aitortu egin behar zaio bere hizkuntza berreskuratzearren, noizbait hitz egitearren egiten zuen ahalegin eskerga. Txabik ez zuen bere burua espainol-tzat, eta bere ekintza guztietan, elkartasuna adierazi ohi zien langileei eta Espainiar estatuko herriei, bai eta mun-duko herritar esplotatu eta zapaldu guztiei ere.

1966an, ETAre V. Biltzarraren I. zatia izan aurretik, ETA barruan gertatutako desbideratze espainiarzale eta berritzailearen aurkako borrokan nabarmendu zen; gertakari haiek talde *likidazionista* Erakundetik botatzea ekarri zuten azkenean.

1967an, ETAre V. Biltzarraren II. zatiaren buru izateko aukeratu zuten Txabi. Biltzarra amaitu zenean, haren gaitasun intelektuala eta izaera iraultzailea aintzat harturik, Biltzar Ttipia batzorde nagusiko eta ETAre Batzorde Exekutiboko kide izendatu zuten.

Txabiren heriotza kolpe gogorra izan zen ETArentzat eta Euskal Herriarentzat. Eta Herriak hori aintzat hartu zuen, herri eta gizarte kontzientzian beste urrats bat eginez. Ezagutu genuenontzat, ezin da zalantzan jarri Txabi lagun bikaina izan zela, abertzalea eta sozialista.

Txabik eta Euskal Herri osoak desio zuen, eta desio du egun, BAKEA; hargatik egiten zuen borroka. Baina ez bake faltsu batengatik, ez esplotazio kapitalistak eta Euskal Herriaren zapalkuntza nazionalak bere horretan iraungo duten bakearengatik. Ez dago bake abstrakturik. Bakeak JUSTIZIA eta ASKATASUNA izan behar ditu oinarri.

Bakeaz mintzatzea, atzoko egoeran, egungo egoeran, hipokrisia hutsa da, gure Herriari ez baitzaizkio onartzen gutxieneko askatasunak ere; ez baitigute uzten gure gudariei omenaldi duinak egiten ere; frankismo garaiko Polizia bera baitaukagu; benetako amnistiarik ez baitugu izan; egunez egun gehituz baitoaz atxilotu, preso eta erbesteratu euskaldunak; Euskal Herriarentzako INDEPENDENTZIA eta SOZIALISMOA estatutueta helburutzat jartzen dituzten alderdiak legez kanpokoak izatera kondenatzen baitituzte; Ezker abertzaleari eta Herriko sektore kontsekuenteenei manifestazio eskubidea ukatzen baitzaie; adierazpen eta biltze-eskubideak ukatzen baitira –Gladysen heriotza, Tuteran gertatua, oraindik gure oroimenetan dago–; Nafarroa gainerako hiru probintzietatik bereizten saiatzen baitira; UCDren gobernua birtarteko guztiak ari baita baliatzen gure herriak ezezko

borobila eman dion Konstituzioa Arabari, Bizkaiari, Gipuzkoari eta Nafarroari inposatzeko.

Txabi, bete-betean zerbitzatu eta maitatu zenuen Euskal Herri langile honek ez zaitu berehalakoan ahaztuko, ez eta Euskal Herriaren alde bizia eman duten beste hainbeste gudari ere. Izan ere, 150 urte badira haien odolak Euskal Herri osoa zeharkatzen duela, iparraldetik hegoaldera. Odol horrek kimuetatik emakume eta gizon berriak ernatzen zaizkion landarearen hazia dirudi; Euskal Herri LIBRE, SOZIALISTA, BATERATU, eta EUSKALDUNA errealtate giteko prest dauden gizon-emakumeak».

Duela 27 urte Txabiren aldeko ekitaldian esandakoa da, eta gaur egungoa dirudi...

1968ko ekainaren 7an beste kide batzuk eta neuk beste era batera bizi izan genituen une latz haiek. Villabonako irratian entzunda, adi jarri ginen, bagenekielako Erakundeko norbait izango zela. Geroago, *parte* batean Tolosako Benta Handin gertatutakoa entzun ondoren, ez zegoen zalantzarik Txabi edo Jokin zela hildakoa, bietako bat.

Pentsa ezazue zer izan litekeen buruko zoramena, erotzea alegia, orain bizi dudanaren antzekoa, oso ezberdinak badira ere ordukoa eta oraingoa. Orduan, ordu guxti batzuetan bagenekien nor zen hildako kidea, Txabi maitea, eta ikaragarria bazen guzti-guztiontzat, baita Erakundearen martxarako ere, esango nuke, niretzat, oraingo zoramenarekin ez duela zerikusirik, ezin deskriba baitaiteke. Nire Jokin, kide, lagun, aholkulari, maisu, maitale paregabea, senarra galdu dut, beti-betiko.

Txabiren aldeko elizkizunek elkartasuna adierazteko balio izan zuten, baina, batez ere, jendea mobilizatzeko izan ziren. Bilboko San Antongo Eliza eta ingurua eta Donostiako Jesuiten Eliza izan ziren nabarmenenak, bertako apaizen sermoiak barne.

Txabiren anaiak, Jose Antonio Etxebarrietak, honela zioen Erakundeak plazaratutako *Iraultza* argitalpenean:

«Xabi ezagutzea zortea izan da, baita bizitzako pasarte batean baino ezagutu ez duenarentzat ere. Hurbileko

tratua izan dugunontzat, berriz, pribilejioa izan da, eta hori ezingo digute urteek ere ebatsi. Oso zaila izango da gutako askorentzat, denbora luzean oraindik, harengan pentsatzeko ausardia aurkitzea, haren hutsuneak, batere lotsarik gabe, negarrez jartzen gaituelako. Egia da, urte gutxi izanagatik (agerikoa zen), Xabi liderra zen, eta, areago, lider atsegina zen. Baina ez kalkulaturik zeukalako, edo atsegin agertu nahi zuelako, Xabi atsegina zen sakonki, biziki gizatiarra zelako».

Nik ez nekien noiz ikusiko ote nuen nire maitea, baina ez nuen espero hain azkar ikustea, ez bainekien Elgoibarrren gordeta zegoenik. Bi egunera agertu zen, hilaren 9an. Bizi artean izango dut gogoan, beste hainbat eta hainbat egun pozgarri eta goxo bezala. Elkarrekin egin genuen negar, samina hain handia izanik, beti eramangarriago egiten baita beste norbaitekin negar egin ahal izatea lagun eta kide batengatik.

### **Militantziaren arriskuak**

Bakoitzak bere lanean jarraitu genuen, eta Jokin, *geldirik* egon behar zuenean, etxera agertzen zitzaidan.

Jokini bekain handien azpian zeuzkan begi handiek serio itxura ematen zioten eta halaxe zen, izan ere. Beltzarrana zen erabat eta bizarra derrigorrez egin behar zuen, oso itxia zuelako eta beltz-beltza. Egun batean, gogoratzen dut, ez ezagutzeko piura izugarri batekin agertu zela: ilea erdi hori, erdi gorri; ur oxigenatuarekin lortzen den kolore gabeko ilea zeukan. Betazalak eta bizarrak berdin eta hau guztia gutxi balitz, kristal argidun betaurreko beltz batzuk, dioptriarik gabekoak. Ezin duzue koadroa imajinatu ere egin! Ikusi nuenean isil-isilik geratu nintzen eta nik ezer esan baino lehen berak bota zidan: «ez ezer esan, mesedez, neu lotsaturik atera bainaiz taberna batera tabakoa eroatera sartu eta nire aurpegia bertako ispiluan ikusi dudanean!». Zalantzarik gabe, zeraman piurarekin, gehiago deitzen zuen arreta bere benetako itxurarekin baino. Baina horiexek ziren klandestinitatearen kontuak.

Haietako batean jertse gorrixka bat oparitu nion. Bai kolorea ondo aukeratu ere, a ze baba-lorea ni! Hala ere, aitortu behar dut nire gustu-gustuko kolorea betidanik gorria eta gorriztak izan direla. Jokin pozik, eta alde egin zuen berera...

Irratia zen garai hartan genuen komunikabide garrantzitsuena, telebista oraindik proba saioretan zebilen, eta badakigu noren eskuetan. Irratiak, berriz, etsaiak *partee*tan zioena entzuteko balio zuen, baina Paris irratia, Mosku irratia, Pirenaica, Andorrako irratia eta antzekoen bidez, beste aldeko informazioa jasotzen genuen gauez, komunistena, sozialistena, langileen grebak, Franco eta bere Gobernuari buruzkoak eta, nola ez, Euskal Herrian gertatzen zenaren inguruko informazioa. ETaren ekintzak, kideen atxilotetak eta abar. Ez genituen beti behar bezala jasotzen, orduan ere ETaren aurka agertzen baitziren aipatutako guztiak, orain askok onartzen duten arren Erakundeak frankismo garaian izandako jarduera. Aurkako jarrera hori etenik gabe agertu izan da Espainiako eta Euskal Herriko erakunde politiko guztietan: hogeitun urte igaro eta gero, ETak eginikoa ondo dago, baina... orain egiten duena ez. Beraz, irratia bezalako tresna hoberik ez zegoen. Horrela, bada, irratia on eta modernoa erosi genuen etxean, eta gauez, patxadaz bainoago urduri, denok buruak elkarren gainean genituela, munduan eta gurean zer gertatu zen jakiteko irrikaz ibiltzen ginen.

Nire maiteak alde egin zuen jertse gorritzarekin, eta gure irratitik entzun genuen bi etakide atxilotu zituztela Hondarribian. Haiek nire bihotzeko taupadak. Sabeletik ahora zetorkidan nahigabe sufriezina! Ez nekien atxilotu zuten ala zauriturik ote zegoen... Ez bainekien bere izenik ere! Neure buruari esaten nion *guda izena* ere emango zutela albisteetan. Baina horrela 8 bat egun.

Bat-batean han agertu zen lasai eta irribarretsu, eta kontatu zidan zer gertatu zitzaien beste lagun bati eta biei: Seat 600 autoan Hondarribiko kale batean aparkatzen ari zirela, bi guardia zibilek *alto* eman, autotik ateratzeko agindu eta dokumentazioari begiratzen ziotelako itxurak eginez, zerbait ondo ez zegoela eta haiekin koar-



telera joateko agindu zieten. Guardia zibiletako bat atzeko eserlekuan eseri zen Jokinen lagunarekin, eta Jokinek, astirik eman gabe, bolantea hartu eta autoa arrankatu zuen, beste txapelokerra alboan zuela, eta autoa martxan zegoela bere burua atetik bota zuen, lagunari beste horenbeste egiteko oihukatzen ziola. Laster ziren bi lagunak Hondarribiko kaleetan zehar korrika batean, atzetik guardia zibilak zituztela.

Jokinek jertse gorritzat besapean zeraman, baina erori egin zitzaion konturatzeke, eta jertserik gabe zihoala konturatzean, buelta eman eta jertsearen bila joan zen. Lurretik hartu, berriro laguna harrapatu, eta Jokinek ezagutzen zuen jantoki batera sartu ziren. Ezagun baten galdera egin zuten, baina ez zegoen han. Komunean sartu ziren orduan, *pipa* eskuetan eta ate atzean tiro egiteko prest, ia ziurtasun osoa baitzuen agertu egingo zirela. Ate hotsa etengabea omen zen, eta derrigor handik irten beharra zuten. «Hil edo bizi, irten egin behar dugu», esan zion Jokinek lagunari. Ateratzean ez zuten topo egin guardia zibil parearekin. Arrain haztegi batean egon omen ziren, lurrean etzanda, amasa hartzeko ere estu eta larri, arriskua pasatu arte, eta gero beste toki egokiago batera joan ziren.

Nire maiteak ez zuen espero pasadizo hori hain irribarretsu kontatu eta gero nik halako errieta botatzerik. «Ez al duzu ikusten zein arriskutan jarri duzun zeure burua dixosozko jertsea jasotzera itzuli zinenean?». Eta berak, «ez nuen denbora asko galdu. Gainera, zuk oparitutakoa zen, Itziar». «Jertse txatxu bategatik? Ez dizut hau barkatzen», esan nion. Baina alferrik zen, elkarrenganako maitasuna gero eta sendoagoa zen elkar ezagutzen genuen heinean. Eta ondo asko bereizten genuen bakoitzaren lana eta elkarrekin egiteko lana. Hori guztia biltzen zuen oreka maitasuna zen, eta da. Herriarekiko eta elkarrenganako maitasuna.

Gertaera haren inguruan, ironia punttuarekin kontatzen zidan bere buruan irudikatzen zuena: bi guardia zibilak autoaren atzeko maletategia zabaltzen, aho zabalik, maletatxo baten barruan elizako kopoia eta ostiak gorde-

ta ikustean. Ihesaldi haren ondorioz, autoaren jabeak ihes egin behar izan zuen, eta hura izan zen okerreana.

## Meliton Manzanasen heriotza

Hasieratik urte gogorra izaten ari zen 1968a. Atxiloketa ugari, eta tortura ia gehienetan. Ezagunak egin ziren hainbat torturatzaile: Creix eta Sainz, Bizkaiko eta Gipuzkoako *Brigada Político-Social*-eko buruak. Criado, García Escobar, Junquera, Muñeca tenientea, Cabezas, Lopez sargentoa, Meliton Manzanas Donostiako BPSko burua... Honek, gehienetan berak zuzentzen zituen atxiloketak eta torturak. Oso ezaguna zen Gipuzkoa osoan eta ez soilik ETako militanteen artean.

1968ko abuztuaren 2a egun oso sonatua izan zen gure garaiko belaunaldiarentzat eta zaharrago eta gazteago-arentzat ere bai. ETak Meliton Manzanas hil zuen eguna.

Oso ondo gogoratzen naiz egun horrekin. Udako egun peto-petoa zen. Bero zakar samarra egiten zuen, eta arratsaldeko lehen orduan, euri zaparrada mardul horietakoa bota zuen. Debako erdiko kalean nintzen aterpe batean babesturik, *Sagarra* bere etxeko eskaileretan hilik agertu zela lehen aldiz entzun nuenean. Albistea berehala bihurtu zen *vox populi*, tabernetan, etxe askotako sukaldeetan eta lagunartean. «*Don Melitón tenía tres gatos, que les hacía comer en un plato, todos los días les daba turrón, que vivan los gatos de Don Melitón*» abesten zen kaleetan, baita luzarora ere. Denek justizia egin zela aipatzen zuten eta, aldi berean, ekintza ospatzen zuten. Izan ere, torturatzaile fama ekinenez eraiki baitzuen.

Ekintza gertatu eta hiru egunetara, abuztuaren 5ean, Gipuzkoan salbuespen egoera indarrean jarri eta berehala 300 lagun baino gehiago atxilotu zituzten, eta haietatik berrogei bat penintsulako hainbat tokitara erbesteratu zituzten.

ETak bere gain hartu zuen ekintza, baina EAJk uko egin zion hori onartzeari. EAJri ez zitzaion komeni horrelako jauzia emateko gai zen erakunde bat Euskal Herrian edukitzea, abertzale gazte eta ez hain gazteek eta langile-

riak bat egingo zuelako erakunde harekin. EAJren jarreraren guztiz kontrakoa baitzen. Haiek, egonean, politika geldoa baino gehiago, geldoaren politika egiten baitzuten.

Ez onartzeko lehen aitzakia honako hau izan zen: ETAk denbora asko eman zuela ekintza bere gain hartu baino lehen. Hala, bada, ETAk prentsa agiria kaleratu zuen hainbat zurrumurruri aurre eginez.

«1.– ETAk bere gain hartzen du ofizialki Meliton Manzanasen, *Brigada político-social*-eko buruaren, exekuzioa. Hala jasotzen da Euskal Herriari igorritako “Meliton Manzanas exekutatua” komunikatuan. Hona hemen erantsita...

2.– Aipatutako komunikatua, abuztu hasieran argitaratu zen, baina ezin izan da orain arte oparo zabaldu, Estatu Espainiarrak jarduera errepresiboak gogortu dituelako.

3.– Atzerapen horrek erbestean dauden hainbat sektore nazionalista immobilista animatu ditu gezurrak, zurrumurrak, eta berri anbiguoak zabaltzera. Horietan, exekutatzaileen identitate eta arrazoiak jartzen zituzten zalantzan».

“Meliton Manzanas exekutatua” manifestuan ETAk dionez, «Espainiar kapitalismoaren beste hainbeste peoi bezala, Meliton Manzanas heriotza zigorrera kondenatuta zegoen aspaldidanik.

Baina ez dugu nahi ekintza hau gertakizun isolatu moduan ulertua izatea, garrantzi gutxiko mendeku pribatu moduan. Manzanas poliziaren exekuzioa borroka iraultzailean urrats garrantzitsua da eta bere benetako balorea hartzen du borroka honen baitan kokatzerakoan. Honek esan nahi du exekuzio honetara arte aurreratu egin dugula, eta honek ez du esan nahi soilik fronte militarrean aurrera egin dugunik, baizik eta lau fronteek aurrera egin dutela (hain zuzen ere fronte kultural, ekonomiko eta politikoen aurrerapenak posible egin dute)».

Meliton Manzanas hil eta sei hilabetera, EAJk berean jarraitzen zuen, ekintza haren egilea ETA ez zela izan esanez, eta ekintza bera zikindu nahirik, oinarri politikoa ez zuen ekintza izan zela nabarmendu nahian.

Atzerriko Eusko Jaurlaritzaren ahotsak, *Euzko Deya* aldizkariak, ekintzaren egilea eta arrazoa oraindik ezezagunak zirela zioen. Manzanasen ekintza *gona tarteko* arazoren bat bezala zabaldu zuen EAJk EGIren bidez Gipuzkoan. Esku-orrietan, besteak beste, honakoa irakur zitekeen: «Ekintzaren egilea karabinero bat izan da, era honetan harekin zeuzkan kontuak kitatzen zituelako. Izan ere, Komisarioak, bere karguaren babesean, aurrekoaren emaztearekin harremanak baitzeuzkan». Historikoa, dudarik gabe.

1968ko atxiloketen ondoren, Poliziaren ekimenak gogor jo zuen apaiz eta fraideen kontra. Horietatik badira deserrituak, baita gerora ezaguna egingo zen Zamorako *Cárcel concordataria* espetxea estreinatu zutenak ere.

## Tortura

1968an, eta lehenagotik ere, indarra erabiliz erregimen frankista defendatzen zuten indarrek hiru izen zituzten: Guardia Zibila, Polizia Armatua eta Espainiako Armada. Horiek gauzatzen zuten sistema osoaren estrategia. Armadak ETaren aurka egindako lehen ekintza publikoak 1968ko Salbuespen egoeran ikusi ziren, baina, batik bat, Burgosko Prozesuaren ondoren.

1968ko abenduan, Espainiako Estatuko 1.500 intelektualek publiko egin zuten agiri batean, Estatuko komisarietan tortura iraunkorki erabiltzen zela salatu zuten. Berri hura, ordea, ez zen agertu ere egin Espainiako komunikabideetan. 1969an, *Branka* Euskaldun Sozialista Aldizkariak zioen 1.953 atxilotu izan zirela, 342 atzerriratu edo iheslari, 53 kondenatu Gerra Kontseiluan eta beste 93 TOPEk, Ordena Publikorako Auzitegiak.

Garai hartan tortura oso ohikoa zen Hego Euskal Herriko komisaria eta gobernu zibil guztietan. Hainbat emakume bortxatu zituzten, eta atxilotutako askotxo hiltzeko arriskuan izan ziren. Kartzelak gainezka zeuden, eta euskal presoek gose grebari ekin zioten Martutenen.

Jokin eta biok atxilotuak izan baino lehentxeago, presoekiko elkartasuna adieraziz itxialdiak egin ziren Euskal Herriko hainbat elizetan. Donostiako Artzain Onaren ka-

tedralean, esaterako, Polizia kaleko jantzita sartu zen bertako erretorearen onespenerekin, eta pistola eskuetan zutela ahal zituzten atxiloteta guztiak egin zituzten, jendea korrika batean kalera atera baitzen, eta gero barrura berriz itxialdia jarraitzera.

Meliton Manzanas hil eta bi astetara, Andoni Arrizabalaga, ondarrutarra atxilotu zuen Guardia Zibilak haren herrian. Bertako komisarian jipoitu ondoren, Zarauzkora eraman zuten, eta zortzi egunez tortura latzak jasan ondoren, Martuteneko presondegira sartu zuten. Hurrengo egunean, Donostiara eraman zuten, Guardia Zibilak Antigua auzoan izan zuen 551. komandantziara. Han beste bi aste torturapean izan ondoren, berriro Martutenera sartu zuten.

Jokinek eta biok ezagutzen genuen Andoni, bakoitzak geure aldetik. Militante abertzale *legala* zen, eta oso estimatua gure artean. Aske utzi eta gero, gogoratzen naiz bere andregaiari galdetu niola Andoniren osasunaz. Eta kuartelean eta komandantzian pasatutakoaz hitz egitera etorri zitzaidan egun baten gasolindegira. Honela izan zuen Jokinek gertatutakoaren berri. Eta Telesforo Monzonnek *Itziarren semea* abestia egin zuen Andoniren omenez.

## **ETAko militantzia**

Euskadi eta Askatasuna entziklopediaren hirugarren liburukian, garai hartako buruzagitzaz hitz egiten du Jokinek: «Lau Fronteak bultzatu eta konpasatu, batak bestearen ekintza uler zezan bederen; dirua biltzeko atrakuak egin (Aretxabaleta, Villabonako bigarrena, Jatakoa) eta kuotak jaso txartelen bidez, azpiegitura antolatu etakide berriak sar zitezen, herriari zuzendutako azalpenak eman propaganda bidez... Hasieran 300 militante inguru ginen ETAn, eta ordurako 3.000ra ere heltzen ginen».

Hitz horietatik aise ondorioztatzen da ez zela inondik inora ere erraza izan fronte baten lan egiten zuenak soilik hantxe buru-belarri jardutea. Goiko aginduak horrela bazon ere, praktikan fronte bateko lanak besteren batekin

topo egiten zuen eta, azkenean, lana elkarrekin egiten zen.

Fronte Kulturealean soilik lan egitea ezinezkoa zen, nahiz horretan indar eta kemen gehiago jarri. Ikastolak, gau eskolak, eskola sozialak eta abar. Ezinbestekoa zen dirua biltzea, gauza guztietarako behar baitzen, eta nire kasuan, azpiegitura lana egitea ere egiteko nagusietakoa izan zen hasiera-hasieratik. Azpiegitura lan horietan hainbat gauza sartzen zen: mugaz bestalde egiten zen propaganda pasatu behar zuten kideekin harremanetan jartzea, etxe batetik bestera jendea mugitzea, eta, horiek klandestinitatean bizi zirenez, lehergailuak eta armak ere eguneroko ogia izaten ziren; beraz, denetik pixka bat ikasi eta egiteko aukera izan nuen... Hori bai, nire burua beti *legal!*

ETAren militantziak, oro har, abertzaletasunetik edaten zuen, eta abertzaletasuna zen gehienen jatorria. Horien artean, baziren gazte denboratik sozialismoa bereganatu zutenak, bizimoduari edo lanari esker, edota munduko iraultzetatik ikasita. Hori garbi geratzen da IV. eta V. Biltzarrean hartutako erabakietan.

Orain arte ez dut kideen izenik eman, oro har, eta ez dut aurrerantzean emateko asmorik ere, errespetu hutsagatik, ez besterik. Izan ere, nire ustez, bakoitzak bizi izandakoa berea da, eta horren berri besteei ematea ala ez, norberaren erabakia da.

60ko hamarkadaren hasieran, marxismoa sakonki aztertzeo aukera izan zuen gure adineko pertsona gutxi zen, baina horretan saiatu zirenak ugari izan ziren.

Kartzelak, berriz, pauso garrantzitsu eta zehatzak hartzen lagundu zigun bati baino gehiagori. Niretzat, behintzat, bizitzarako guztiz onuragarriak izango ziren urratsak.

Euskal Herrian, 60ko hamarkadan Elizak zerikusi handia izan zuen abertzaletasunean, eta abertzaletasunak elizkoiengan. 1967tik 1969ra, fraideak eta apaizak zutabe nagusietakoak izan ziren militanteen eginkizunetan, eta haietako asko ETAko militante ere bihurtu ziren.

1968 hartan, gure etxean, gurasoenean, kristautasuna zen nagusi, gure amaren esku gogor eta fede sakonak zuzenduta. Beraz, elizarekikoak ere *bete* egin behar, nahiz Elizari eta bere aita santuari sekulako kritikak egin. Amak beti bereizten zuen jaungoikoa eta Eliza. Gaur egun, etxean entzuten duenez meza eta arrosarioa ez dakit elizaren konturik asko dakien, nahiz ez zitzaion deus ere gustatzen aita santua kritikatzeara.

Kontua da, 1968ko otsailaren 15ean, Jokin eta biok elizatik ezkondu ginela, Aizarnan. Bertako apaiza eta bertako bi lekuko, beste inor ez. Guztiak konplizitate handian, eta denak pozik. Epaitegira ez ginen joan, noski. Epaitegira joanez gero, Jokin atxilotzeko arriskua zegoen eta, bide batez, baita neu ere.

Horretan geratu zen, bada, gure *ezkontza*. Elizatik atera eta bakoitza geure aldetik eta geure lanera joan ginen...

## **ETAren armategia**

ETAren kontrako errepresioa azkartzen joan zen heinean, liberatuek beren burua babesteko neurriak zorrotzen hasi behar izan zuten. Hala, bada, Jokinek, oheratzerakoan, *pipa* burkoaren ondoan uzten zuen beti, eskura. Liberatu gehienek ohitura bera zuten, norbait bila etorritz gero, bere burua defendatzeko.

Armak aipatu ditut, eta badirudi sekulako armategia zuela garai hartan ETAk. Nik, egia esanda, ez dakit gauza handirik horretaz, baina nik ezagutu nituen liberatuek, eta ez batek, bik edo hiruk, gainean eramaten zituzten *pipak* trabukoaren antzekoak ziren. Eta suerte pixka batekin, Astra dezentea zuena, nagusi. Astra horiek ez ziren hemen jasoak edo erosiak, kanpotik zetozenak baizik, Gernikan eginak izan arren.

Arestian aipaturiko kristautasunaren harira, badago gai honi lotutako beste istorio barregarrikerik ere: kide batek egundoko *trabukoa* eramaten zuen, eta gerrikoaren beste aldean baita beste bulto bat ere. Zer ote zen! Nahiko intrigaturik ninduen... Bi *pipa* ote zituen? Zertarako? Baita zera ere! Halako batean, hara non ikusten dudana

trabukoa gordetzen eta haren adinako gurutzetzarra ateratzen gerrikotik! Badaezpada, ez nuen barrerik egin, kontu horiek serioak baitira. Santa Cruz apaiza ez al zen euskal foruen alde borrokatu gurutze eta beharbada sota-na eta guzti?

Trabukoez gain, garai hartarako izan zen arma sarrera garrantzitsurik ere. Lehen aldiz Txekoslovakiatik iritsi ziren armak, egurrezko kaxa batean, diru truke sinboliko bat eginda. Hura zen poza kideen artean! Zein baino zein hobea iruditzen zitzairen. Arma txikiak eta arma luzeak, mira teleskopikoa eta guzti. Han agertu ziren Astrak ere, makina bat buelta eman ondoren. Euskal Herritik irten eta Euskal Herrira itzuli!

Jokinen hitzetan, «garai hartan oso arma gutxi genuen. Gogoan dut lehendabiziko pistola sorta beste herrialde batetik iritsi zitzaigula, Txekoslovakiatik, eta kurioa da Astra markakoak zirela, espainiar markakoak, hau da, joan-etorriko esportaziokoak».

Egurrezko kaxa ez zen nolanhikoa, eta iritsi zenetik banatzeko egunera arte, neuk gorde nuen. Eta non hobeto lan egiten nuen tokian baino. Hainbat lanen artean, aitak ustiatzen zuen gasolindegian aritzen nintzen, bai gasolina ematen eta baita hango kontuak eramaten ere. Bulego txiki bat nuen, eta han egoten nintzen lan haietan, eta aurrez aurre kaxa hura, beste batzuekin batera.

Zenbat aldiz guardia zibilak ez ote ziren kaxaren ondoan egon gasolina hartu ondoren ziurtagiriak sinatzera etortzen zirenean! Ni, beti bezala, patata baino serioagoa, baina egundoko barne poza sentitzen nuen une horietan!

## **Kultur giroa**

Hamarkada hartan, pauso handiak eman ziren, oro har, kultura mailan. Zalantzarik gabe, Europako haize freskoak eragina izan zuen. Ez Dok Amairu taldearen sorrerak egundoko eragina izan zuen euskal kulturaren. Gogoan dut egunero abesten genituela Benito Lertxundiren kantak eta Xabier Leteren poemak. Lourdes Iriondoren hitzak,



Mikel Laboarenak, O Pello, Pello! eta gainerakoak. Geroa-go, Alcalako kartzelan nintzela, sartu berriei entzun nien *Hegoak ebaki banizkio*, eta oso gustukoa nuen abesti hura. Bakoitzak bere kantaria zuen, eta hor ibiltzen ginen baten letrak eta bestearenak alderatuz, politena zeinen musika zen eta nork zuen ahotsik ederrena. Bertsolariekin ere antzera ibiltzen ginen, kantuak eta bertsoak buruz ikasten. *Domingo Kanpañarena* zenbatetan kantatzen genuen kide batek eta biok! Mixel Labeguerieren *Gu gera Euskadiko gaztedi berria* hark, berriz, barrua pizten zigun. Zalantzarik gabe, euskal sentimendua barren-barrenean txertatuta genuen. Ikurrina, euskal kantak, euskaraz egiten saiatzen zirenak ia ezer jakin gabe... Denak eramaten gintuen Euskal Herria, gure aberri bezala guztiz maitatzera. Sorlekua- ren arabera, ezberdintasunak ere izaten ziren, ohikoa den bezala. Gipuzkoarren artean zaila zen euskaraz ez zekien inor aurkitzea eta, beraz, bertsozaleak ere gehiago ziren. Kantariak eta txistulariak, berriz, gehiago ziren bizkaitarren artean, euskararen gabezia betetzeko, beharbada. Hori nire iritzia da, noski.

Jokin Iparraldera joan zen batean, Labeguerieren disko txikia eta *Canciones de la Revolución mexicana* bilduma ekarri zidan. Etxean *pick up* tokadiskoa genuen, eta han entzuten genituen abesti haiek, gustura, baina kontu handiarekin, kanpotik inork entzun ez zitza. Orain, disko haiek, beste ehunka kontu bezala, altxorrik preziatuenak dira niretzat.

Gerra osteko poeten artean eragin handiena sortu zuena Gabriel Aresti izan zen, gure iritziz, behinik behin. *Harri eta Herri* eta *Euskal Harria* gu atxilotu aurrekoak ziren. *Nire aitaren etxea defendituko dut* poema zegoen lehenengo liburuan, eta oso estimatua genuen hura. Zenbat aldiz aipatu ote genuen Jokin eta biok mitinetan eta hitzaldietan! Nire ustez, poemaren egituran eta hizkuntzaren erabileran benetako iraultza dago.

Geroxeago, Bitoriano Gandiaga sartu zen poeta handien artean. Bere poemak oso gogokoak nituen, eta Jokini irakurtzen nizkion. Pertsona maitagarria zen Bitoriano! Ez ditut ahaztuko 1998an Martutenera egin zizkidan bi bisitak!

Jorge Oteiza nola miresten genuen ere oroitzen naiz. Batetik, bere lanagatik, baina baita bere konpromisoagatik ere. Erakundeak garai hartan harreman estua zuen berarekin, Txabik hasitakoa, hain zuzen. Txabi bezalako norbait tek soilik egin zezakeen halako lotura bat.

*Iraultza* izenarekin ETAk argitaratu zuen liburuxka gorri txikiak *Hacia una estrategia revolucionaria vasca* delakoak, azalean, Oteizak egindako marrazkia zuen. Gerora, *Quosque tandem* irakurriko nuen, lehendabizi Iruñeko kartzelan. Gogoan dut liburu hari buruz eztabaidak ere izaten genituela Jokinek eta biok elkarri bidalitako eskutitze-tan. «Arnas egin dezagun, euskal arimak modu berezian arnas egiten du eta», zioen Oteizak.

Frankismoaren urte gogorretan ginen, eta euskaldunen zutabea debekatuta zegoen: euskara. Hala ere, urte oparoak izan ziren euskal kulturarentzat: euskara batua-ren lehen urratsak, *Egan*, gero *Jakin*, *Herria*, *Goiz Argi*, *Zeruko Argia*, *Anaitasuna*, *Principe de Viana* eta euskara hutsean argitaratu ziren hainbat aldizkari. Ikastolen loraldia eta *Ama Lur* filma ere ordukoak dira.

ETAk paper benetan garrantzitsua jokatu zuen berrikuntza kultural hartan, ez batzuek horrela aitortzen zutelako, euskal kontzientziaren pizkundean parte-hartze zuzena izan zuelako baizik.

*Gernikako arbola* kantua beti ikusi dugu EAJri lotuta, neuk bederen, alderdi horrena balitz bezala, eta horrek Jokini amorru bizia sortzen zion: Iparragirrek egina zela, euskaldun orentzat, eta beraz geurea beste inorena baino lehenago, gure asaben eta gurasoen bidea jarraitzen dugunez gero. Kito! Hori zen bere arrazonamendua. Arrazonamendu zuzena, bestalde, eta hori indartu nahian edo, bere urtebetetze egunean Gernikara joateko gonbidapena egin zidan. «Han, bihar, honelako ordutan», esan zidan.

Han elkartu ginen, Gernikan, elkarren gozamenerako. Inongo begirik ez guri begira, inongo belarririk ez gu entzuteko, eta arratsalde baketsu batean belardi ederra, eta aulkiak. Ez zen lorerik egongo, udazkena baitzen, baina

egun zoragarria zen! Gernikako elizako kanpaiak jotzean, Ilunabarra jotzen hasi ziren, eta han egon ginen biok elkarri lotuta, isiltasun osoz, entzuten. Oraindik kanpai haien errepika entzuten dut, eta gogoan dut maitalerik goxoen nire alboan, biok bat eginik.

Iruñeko kartzelatik idatzi nion gerora: «*Bihotza, un día volveremos a ir a Gernika, e iremos a los mismos lugares, y espero que no quiten aquel original reloj que al marcar las horas tocaba Ilunabarra*».<sup>2</sup>

Orduantxe oparitu zidan Gernikako Arbola zuen domina, atzealdean «Gora Euskadi Askatuta!» hitzekin.

1970ean bere urtebetetzerako idatzi nion eskutitzean, domina hura hizpide izan nuen: «*Cada vez que miro la medalla que me regalaste en tu día, recuerdo la ilusión tan grande que me hizo, y también, que me quedé como una “papamosca” sin saber qué decirte, de forma que hasta se te ocurrió pensar que no me gustó. Barkatu maíttia! Siempre me ocurre lo mismo con las emociones fuertes, me quedo sin habla hasta poder ordenar el sentimiento y el pensamiento. Aquí la tengo, bihotza, conmigo. Eskerrik asko! Es muy bonita, y sobre todo viene de tí*».<sup>3</sup>

Noiztik ote zuen nire kuttunak ideia hura, eta nola lortu ote zuen batetik domina erostea eta bestetik hitz haiek grabatzea! Ez nion inoiz galdetu, garai hartan ez bainion sekula ezer galdetu, ezta bere izena ere. Batzuetan *Potxolo* zen, besteetan *Andres*, eta *Nicolas* esaten ziotela ere entzun izan nuen. Atxilotu ez bagintuzten, izendegi osoa pasatuko zen haren eskuetatik. Nongoa zen ere ez nekien. Erabilitako euskarak eta haren doinuak galtzen gintuen beti, eta laguna zehazki nongoa zen beti asmatzen ez genuen arren, ingurukoa zela ziur. Jokin, nire iriziz, Goierrikoa ez zen, baina urrutikoa ere ez.

---

2. «Bihotza, egunen batean Gernikara itzuliko gara, eta leku berberetatik ibiliko gara, eta itzaropena dut ez dutela kenduko erloju bitxi hori, orduak ematerakoan Ilunabarra jotzen zuena».

3. «Zure egunean oparitu zenidan dominari begiratzen diodan bakoitzean, oroitzen dut zer ilusio handia egin zidan. Memelo baten moduan geratu nintzen, zer esan jakin gabe, eta azkenean gustatu ez zitzaidala ere pentsatu zenuen. Barkatu maíttia! Beti gauza bera gertatzen zait emozio gogorrekin, hitzik gabe geratzen naiz, sentimendua eta pentsamendua ordenatu ezinik. Nirekin hementxe daukat, bihotza. Eskerrik asko! Oso polita da eta, batez ere, zugandik dator».

Huraxe nekien hari buruz. Ez nuen besterik behar, eta komeni, berriz, are gutxiago.

Gabon buelta beti da mingarria. Familian biltzeko eta elkartzeko eguna ohi da, eta gehienetan falta da norbait. 60ko hamarkadan bezala, milurteko honetan ere abertzaleen etxeetan hainbat lagun faltako da. Festa horiek, gero eta familia kutsu gutxiago duten festa horiek, dendarienezako festak bihurtzen dira, eta familientzat zauri urratuak besterik ez. Hori izan zen eta da Jokin eta bion iritzia.

Jokin, sasian zebilen garaian, Gabonetan saiaturen zen ahal izanez gero aitarekin, amarekin eta arrebarekin pare bat egun pasatzen. Horretarako, garai hartan baziren Iparaldean leku egokiak, bai familiarentzat eta, batez ere, sasian zebiltzanentzat.

1968ko Gabonak familiarekin pasatu zituen. Gero, biok adostuta, Urte Zaharra baino lehen hara joan nintzen ni ere, pare bat egun elkarrekin igarotzeko.

Jokin bizitza osoan izan zen detailezale porrokatua. Pasatu zen etxe guztietan utzi zuen aztarna. Pastak ez baziren, goxokiak izango ziren, edo etxeko umetxoarentzat txupetea; ahal zuenean, beti eraman ohi zuen zerbait etxekoentzat.

Saiaturen zen etxeko ohiturak bere egiten, eta etxekoei ahalik eta gutxien molestatzen. Hori izan zen beti haren bidea.

Ez zuen oso ondo pasatuko haietako etxe batean, beti izan baitzuen gogoan, eta halaxe esaten zuen, Erakunde-an ez zela izango berak adina arrosario entzun eta *errezatutako* liberaturik. Etxe bedeinkatu hartako ama hasten omen zen «Santa Maria Jesusen ama», eta berak ezin jarraitu, ahaztuta baitzuen, eta «*larararararamén*» esaten omen zuen, apal-apal eta nahiko isilean, baina nola edo hala jarraitzen zuen gizajoak. Etxe hartakoa, gainera, normalean baino arrosario askoz luzeago iruditzen omen zitzaien!

## Bigarren atala

Ordu eta erdi iraun zuen Jokin eta Iñigoren arteko solasaldiak, hurrengo astelehenerako deklarazioa prestatze aldera, eta nik ere parte hartu nuen zenbait momentutan.

Paperez josita atera ginen bulegotik, etxean bion artean hitz egindakoa hobeto prestatzeko asmoz.

Ordulariari so egin –Debarantz trenan hartzeko denboraz larri genbiltzan– eta agurtu egin genuen Iñigo, hurrengo arratsaldean kaferen bat hartuz iritziak edo gaizkiulertuak trukatuak genituela esanez.

Bulegotik atera ginen, Amaraantz, trenan hartzera. «Ezin dugu autobusik hartu. Ez ginateke ordurako iritsiko», esan zuen Jokinek. Pausoa azkartu nuen, eta Jokin atzetik. Hotel Londreseko semaforoan gelditu behar izan genuen, eta oraindik denbora bagenuela esan zuen. «Bada, orainxe esan duzu ez dugula!», nire erantzuna. Lasaiago-edo jarraitu genuen behintzat. Katedraletik heldu ginen Easo plazara, eta jendea trenetik kale aldera zetorrela ikusi nuen. «Goazen, Jokin», esan nion, eta baxoerdi bat bera

ere ez al genuen hartu behar erantzun zidan. Izan ere, trenetik trenera, pauso luzean Donostia zeharkatu besterik ez genuen egin, komunera joateko astirik ere hartu gabe. «Deban hartuko dugu, kuki» erantzun nion, eta billeteak eskuetan genituela, lehendabizi ni eta gero bera, trenaren azken bagoian sartu ginen, beti bezala.

## Atxiloketa

1969ko martxoaren 8a, Jokin eta biontzat, eta etxeko-entzat ere bai, egun ahaztezina bihurtu zen. Garai hartan, gogoan dudanez, behinik behin, Euskal Herrian ez zen ez aldarrikatzen ez ospatzen Emakume Langilearen Eguna.

Etxeko sarrerako ateari kolpeka ari zitzaizkiola entzun genuen 06:30 aldera, apurtu beharrean: «*Abran, o tiramos abajo la puerta*».⁴ Polizia zen, oihuka. Aita «*ya voy, ya voy*»⁵ esanez inguratu zen ate ondora. Bultzaka, sarraila puskatuz, aitari masaileko bat eman eta tropela sartu zen etxera, lan-jantziekin eta anoraka gainean, metraileta eskuetan eta Jose Sainz komisario torturatzailea buru zutela, arrapaladan. Jokinen bila etorri ziren.

Atea entzun orduko, korrika batean sukaldera abiatu zen Jokin, neuk esanda baitzekien horrelakoetan handik

---

4. «Ireki edo atea botako dugu».

5. «Banoa, banoa».

beste etxe batera pasatzeko aukera zegoela. Leihotik bu-  
rua atera, eta aurreko etxeko goiko pisutik gizonezko bat  
«¡Aquí está, aquí está!»<sup>6</sup> oihuka hastea dena bat izan zen. Jo-  
kinek atzera egin zuen, eta gurasoen etxeak plazara duen  
leihorantz abiatu zen. Plazatik tiro sorta bat bota zioten,  
baina ez zuten zauritu, eta auto baten gainera salto egite-  
ko agindu zioten. Jokinek ez zuen nahi horrelakorik, hara  
salto eginez gero ez litzatekeelako zaurituko eta ez lukete-  
lako ospitalera eramango. Ordurako atzetik zituen langilez  
jantzitako txakurrak, eta bultza egin zioten, baina nola edo  
hala azkenean lortu zuen plazako lurrera salto egitea, eta  
orkatila apurtu zuen eta orpoko giharrak edo lotailuak  
hautsi. Tren geltokia dago gure aitaren eta amaren etxe  
aurrean, eta han zeuden benetako langileak tren ahar-  
tzeko zain, lantegietara abiatzeko. Geroztik, askotan eta  
askok aipatu izan digute egun hartan ikusi zutena, eta uni-  
formez jantzitako poliziarik ez zela ikusten, ezta furgone-  
tarik ere plazan.

«Beti izan dut buruan ihesa, eta leihotik ihes egitera  
nindoan orduan ere, Sainzek eta konpainiak Itziarren gu-  
rasoen etxeko leihotik nola jauzi eragin zidaten, eta nola  
hanka hautsi nuen. *Ordena publikoko indarren* metodoak.  
Beti uste izan dut, presoarena ihes egitea den bezala,  
iraultzailearena ez harrapatzen uztea dela», adierazi zuen  
Jokinek, *Euskadi eta Askatasuna* entziklopedian argitaratuta-  
ko elkarrizketan.

Jokin leihoetako ibilbide hura egiten ari zen bitartean,  
karpeta batzuk eta paperak gordetzen saiatu nintzen ni.  
Lehenik etxe azpiko biltegi batean, baina berehala kon-  
turatu nintzen hara ere joko zutela, eta lehen aipatutako  
patiora jo nuen. Ez nuen oihurik entzuten, baina leihotik  
jaisten ari nintzela, atzamar handi batzuek heldu nindu-  
ten besoetatik, eta sukaldeko paretaren aurka bota nin-  
duten, egundoko kolpeak emanaz buruan eta bularrean.  
Jose Sainzen atzamarrak ziren. Ezin nuen arnasarik ondo  
hartu, eta saihets-hezurren bat edo beste gaizki zegoela

---

6. «Hemen dago! Hemen dago!».



nabaritzen nuen. Lurrean etzanda nengoen, baina ez nuen beldurrik sentitzen, kezka ikaragarria baizik, Jokinen egoeragatik, tiroak entzun bainituen.

Txakur bat aurrean nuela, jantzeko agindu zidaten, eta nik ezetz, atea itxi ezean, behintzat. Komuneko atea erdi itxita geratu zen, eta txiza egin, aurpegia garbitu, orraztu eta jantzi egin nintzen, marka ezartzeko moduko denboran.

Jokin pijama jantzita eraman zuten, hanka erdi zintzilik zuela.

Zurrunbilo hartan, ama ere lurrera bota zuten, belarrondoko bat emanda, egongelako mahai azpira. Ahizpa gaztea eta anaia ere han zeuden. Aita eta anaia ere eraman egin zituzten. Oraindik ere gogoan dut ahizpa gaztearen irudi hura, leiho atzetik plazara begira, negar batean. Beste ahizpa ezkondata zegoen, eta bere etxean bizi zen senarrarekin –garai hartan, haurdun zegoen–. Azkena neu atera ninduten. Etxetik ninderamatenean, besotik ondo helduta, pasilloan, ama hurbildu zitzaidan, musu ematera, eta patrikan diru pixka bat sartu zidan. Diru hura lagungarri izan zitzaidan, leotzetan hilekoa etorri eta konpresak eros zitatzela eskatu bainien hango polizia eta zaintzaileri. Amak musu eman zidan une hartan, Jokinek oparitutako domina –lehenago komunean kendu nuen– amaren patrikan lagatzea lortu nuen. Bihotza negarrez genuen une hartan, ohartzeko, guretzat, guztiontzat, bizimodu berria hasi zen.

Auto batean, Jose Sainzek zainduta, Jokin zihoan. Atzetik, beste batean, aita eta biok. beste auto batean, etxeko gazteena: anaia. Hamasei urte zituen. Beste auto andana bat ere bazihoan, noski, karabana txiki horren aurretik eta atzetik.

Donostiako Gobernu Zibilera eraman gintuzten. Ez nuen Jokin ikusi, eta nire nahigabea gero eta handiagoa zen. Aita, anaia eta hirurok, hainbat ate tarteko, gune batean utzi gintuzten, beste batzuekin, eta bizpahiru poliziarekin. 08:00ak ere ez ziren izango. Elkarrri so eginez aritu ginen, elkarrri indarra eman nahian edo, isil-isilik.

Handik pare bat ordura-edo, aita eta anaia eraman egin zituzten handik. Gero jakin ahal izan nuen Gobernu Zibileko garaje baten antzeko toki batean eduki zituztela, jendez gainezka zegoen leku batean. Aitari, bertakoen artean nagusiena izanik, koltxoi zahar bat bada ere aurkitu zioten, lo egin zezan.

Ni goian eduki ninduten, bakarrik, gela tarte horretan. Bi tipo etorri zitzaizkidan halako batean, Jokin hil egin zela esanez. Haien hitzak sinetsi ezinik gelditu nintzen, mutu. Alde egin zuten. Zutik jarraitu nuen. Leiho txiki-txiki batetik zeru zati bat ikusten zen, eta eguzkia sartzen; ilunabarra zen. Negar zotinka hitz egin nion neure buruari: «Jokin, maittia, egunen batean libre izango gara, eta eguzkia elkarrekin ikusiko dugu». Entzundakoa ezin nuen sinetsi. Eta horrela nintzela, hara non, ahotsak entzun eta burua jiratzerakoan nire bihotzeko maitea ikusi nuen! Etzanda zeramaten hiruzpalau txakurren artean, eskailetan behera, baina bizirik! Geroago, eskutitz batean esan zidan, ikusi soilik ez, «lasai, Itziar» ere esan omen zidan, baina isilarazi egin zuten berehala. Ni ez naiz oroitzen ezer esan zidanik, baina ikusi nuen, eta lasaitu egin nintzen benetan.

Ez dakit zein ordu izango zen ziegara eraman nindutenean, baina beste egun bat zen. Hankak lehertzeko zorian nituen. Hango *kaiola* guztiak erabat beteta zeuden. Bazterreko batean sartu ninduten, eta burdinetara lotu, atek burdin barrak baitzituzten.

Barruan nituen bi kezkak helarazi nahi nizkien lehenbailehen han zeuden lagunei. Denak adi egoten ginen horrelako tokietan lagun berri bat sartzen zen bakoitzean. Zerbait esaten hasi bezain agudo, ordea, han agertu zen leotzetako polizia, isiltzeko aginduz eta, beraz, beste moduren bat aurkitu behar zen. Kantuen bidez asmatu genuen zerbait. Ez orduan soilik, hurrengo egun batzuetan ere, ahal zenean, zaintzaileak alde egiten zuenean, modu hartara adierazi ahal izan genuen nor erori zen: *Potxolo, Andres, Nicolas...* Guztien nahigabea handia izan zen. Batzuek ezagutzen zuten, baina guztiak entzuna zuten haren izena, edota jasota zituzten haren aginduak. Nirekin zeriku-

sirik bazutenak ere han ziren. Eta elkarri abestuz eta bertsoan eginez ulertu genuen elkar.

Beste kezka ez zen txikiagoa: poliziak nik gorde ohi nuen kaxa haren berri ez izatea. Anaiak lagundu zidan kaxa hura zegoen tokitik auto batera eramaten, eta berak zer zen ez zekien arren, nirekin batetik bestera kaxa bat eraman zuen, eta hark ondorio larriak ekar zitzakeen. Ez soilik Jokin eta biontzat, baita anaiarentzat ere. Horregatik, komunerako korridorean zeuden *kaioletako* lagunei kantatzen nien. «Mutil gazte txiki bat komunerantz doanean, dei egiozue, “Xabier!” eta mezu bakarra eman: kaxarik ez dela existitzen, ahazteko horretaz».

Nire bertsoak errimarik gabekoak ziren, guztiz barregarriak, baina denek ulertzen zuten ulertu beharrekoa. Txakurrek, berriz, bazuten gure bertsoak entzutea baino lan handiagorik, egunero ekartzen zuten atxilotu pilarekin!

Salbuespen egoeran geunden orduan, eta nahi zutena egiten zuten. Atxiloketa nahi adina luza zezaketen, eperik gabe, eta eskuak erabat libre zituzten alde horretatik. Jokinek eta biok, hamazazpi egun egin genituen Donostiako Gobernu Zibilean, albuespen egoera bertan behera utzi zuten arte.

Hamazazpi egun haietan denetik izan zen. Berehala hasi ziren galdeketa. Eta han ibili nintzen gora eta behera, atxilotu guztiak bezala. Denak bezala, ez. Jokin ez bainuen ikusten, eta goiko galdeketa gela beldurgarri horietakoren batean egongo zela pentsatzen nuen. Gero jakin izan nuen lurrean etzanda eduki zutela, eta tinko eutsi ziola bereari, Sainz komisarioa bera eta Escobar etenik gabeko galdeketa gainean zituela.

Hitzaldiren baterako prestatu zuen Jokinek ohar hau, bere bizipenen berri ematen baitu: «Atxiloketa martxoaren 8an, Jokin, Itziar, familia. Sainz beste 20 gizonekin. Etxearen aurrealdea tiroz josi. Leihotik jauzi egitera behartu. Orkatila eta zuntzak apurtu. Gobernu Zibila, Sainz, Escobar, 17 egun. Albuespen egoera. Lurrean botata. Torturak eta abar. Saltxitxoi ogitartekoa. Itziar, aita, Xabier atxilotuak. Martutene inkomunikaturik. Lasanta epailea.

Hilabetera lekualdaketa Burgosera, zigortuentzako kartzela».

Ohartu ziren Jokin hilda zegoen kontu hura ez nuela sinetsi eta, beraz, belarrondokoak ematetik buruko kolpeetara pasatu ziren, eta gero hormaren kontra bota ninduten. Saihetseko min handiarekin nenbilen, eta arnasa hartzeko nahiko gaizki moldatzen nintzen. Gauza bakarra esaten nuen, egia hutsa: Andres nire senargaia zela –badaezpada, ez nuen esan elizatik ezkondata geundela, ez bainekien Jokinek zer esango zuen–, eta bertan hiltzen baninduten ere ezingo nuela ezer gehiago esan. Horrela, bada, beste taktika bat hartu zuten. Igarri zuten nire puntu ahula Jokin zela, eta haren oihuak izan zitezkeenak entzuten nituen aldameneko gelan. Bihotzeko taupadak areagotzen joan zitzaizkidan, itolarria sentitu arte. Orduan arasa batetik tortura tresnak atera zituzten, eta erakutsi egin zizkidaten, Jokini zer egiten ari zitzaizkien esanez. Ni orduan eta itxiago nengoen, nire bihotza erotuta zebilen, baina burua nahiko hotz nuen. Eta neurean jarraitzen nuen: «Andres nire senargaia da, eta horregatik zegoen ni bizi naizen etxean, nire gurasoen etxean». Engainatu egin ninduela eta abar, baina nik banekiela kontu hura eta beste hura, eta horrela jarraitu zuten txakurrek.

Etenik gabe, antzeko galdeketak, antzeko kolpeak, aldameneko gelatik garrasi saminak eta, era berean, txakurren oihu zorrotzak. Belarriko mina eragiten zidan hark guztiak.

Halako batean, beste era bateko tortura eragin zidaten: mahai gainean etzan ninduten, eta inguruan sei-zazpi bat txakur gazte jarri zitzaizkidan, ni bortxatzera zihozela esanez, eta aukeratzeko norekin nahi nuen. Negarri eman niola uste dut, eta etenik gabe jarraitu zuten zein gaztea nintzen esanez, hogeita bost urte egitear nituen arren 17 urteko baten itxura nuela esanez, eta batekin edo birekin edo guztiekin *night-club* batera eramango nindutela, han dantzatu eta gaua pasatzeko... Eta antzeko zabor eta zakarkeria ugari entzun eta pairatuz igaro nituen egun beldurgarri haiek.

Gogoan dut haietako saio batera igo ninduten batean, kide bat ikusi nuela gela batean, mahai baten inguruan eserita. Berak ere ikusi ninduen, eta zeharo gorritu zitzaion aurpegia. Gizajoa! Zer pasatzen ari ote zen. Orduan ulertu nuen Jokin zergatik erori zen, gu zergatik erori ginen.

Beste batean, aurrez aurreko bat eginarazi zidaten beste kide batekin. Bera gogor ari zen ezagutzen nuela esanez, eta onartu egin nuen, txistulari bezala ezagutzen nuela Debako euskal jaietatik. Hortik aurrera ez nuen ezer gehiago esan. Zein pozik galdetuko niokeen nire kuttunari bere itaunketaren berri! Galdeketa nolakoa izan zen. Komisarian igaro genituen hamazazpi egun haiei buruz ez genuen inoiz zehatz-mehatz hitz egin. Baina geure buruekin lasai geunden, behintzat, ez baitzen ez inor ezta ezer garrantzitsurik ere erori. Gogoan dut noizbait polizia gazteen pasadizoa kontatu niola Jokini, eta hura ahazten lagunduko zidala erantzun zidala ere bai.

Gobernu Zibileko egonaldiari buruzkoak *Euskadi eta Askatasuna* liburukietan kontatu nituen, 1993an. Han agertzen ez direnak, berriz, hemen, Jokinen oroimenez.

Aitak eta anaiak estutasun galantak pasatu zituzten. Batez ere, aitak. Sekulako galdeketak egin zizkieten, bizitza goitik behera aztertuz. Gerran ere, ez zuen egin Francoren alde, eta horrek ez zion asko lagunduko. *Terrorista* bati etxean babesa ematea leporatzen zioten. Ordurako *terrorismo* hitza erabiltzen hasita zegoen, *Bandidaje y terrorismo* legearen bidez. Lege hark eragin zuzena izan zuen kartzelatuentzat. Besteak beste, baldintzapeko askatasuna erabat kentzera iritsi ziren.

Anaiari, berriz, ezin ezer leporatu, eta azkenean biak etxera bidali zituzten, baina ordurako hamalau egun igaro zituzten atxilotuta. Detaile bat izan zuten aitarekin. Bera zegoen garajeko poliziak, hil hartan, martxoaren 18an, lehen biloba jaio zitzaiola jakinarazi zion eta, beraz, aitona izan zela lehen aldiz. Malkoren batek edo bestek ihes egin omen zion gure aitari.

## Martutenera

Hamazazpi egun horiek bete ondoren, oraindik Martutenera lekualdatuko gintuztela ez genekienean, goiko gela horietako batera eraman ninduten. Aho zabalik geratu nintzen han nire bihotzeko kuttuna ikusi nuenean, Escobar komisarioaren ondoan. 1970eko urriaren 8an Burgosko espetxetik bidali zidan gutunak honela dio, une hura hizpide hartuta: «*Nos quedamos como mudos, creo que de la impresión que nos hizo vernos después de aquellos 17 días que me parecieron años. No eramos capaces más que para mirarnos, pero ya nos dimos unos abrazos. Así que podemos ir preparándonos para que ahora no nos ocurra lo mismo, y aprovechemos al máximo el tiempo que podamos estar juntos*».<sup>7</sup>

Oraintsu jakin dut, Jokinen arrebak esanda, Martutenera egindako lehen bisitaldian, ama Kontxitak hala esan zuela: «Gizajoak eroaren begiak dauzka. Zer ez ote diote egin!».

Leotzetan zeuden beste lagunekin sotora jaitsi nindutenean, nire bihotza alai zegoen, eta pozik ematen zituen taupada zoro samarrak, furgoian Jokinekin batera joango nintzela jakinda... Baina ez nuen gehiago ikusi, ez baitzuten gure furgoian sartu Martutenerako kartzelarako bidean.

Martutenera sartu gintuztenean, lehenengo hiru egunetan besteengandik bakartuta egotea kartzelako araudi barruan sartzen da. Sendagilea pasatu arte eta berak gaitxotasunik ez duzula ikusi arte omen zen, eta hala omen da gaur egun ere, baina argi dago zigor erantsia besterik ez dela. Sendagileak une batez ikusten zintuen, baina epaileak agintzen zuen noiz arte iraun behar zenuen bakartuta. Eta Jokin eta biokin, bederen, horixe gertatu zen.

Ez naiz gogoratzen sendagileak ikusi ninduenik, beharbada, ziegara agertu ziren funtzionario horietako norbait izan zen, baina nire osasunaz, behintzat, inork ez zuen galderarik egin.

---

7. «Urteak iruditu zitzaizkigun 17 egun horien ostean elkar ikustean, mutu geratu ginen inpresioagatik. Soilik elkarri begiratzeko gai ginen, baina besarkada batzuk ere trukatu genituen. Beraz, goazen geure burua prestatzera orain gauza bera ez gertatzeko eta probestu dezagun ahalik eta gehien elkarrekin eman dezakegun denbora».

Nire Jokin besterik ez nuen buruan. Oraindik haren berri jakin gabe, ziegako bakardadean negarrari ematen nion barrua hustu nahian. Gogoan dut bakartze ziega txiki hark sabaian zuela leihoa, harrizko edo porlanezko mahaia eta aulkia lurrera itsatsita, eta mahai gainean portzelanazko –lapikoen antzeko gaiez egina– platera eta koilara bat. Aldamenean burdinazko ohea, jantzi gabe, gainean manta zakar bat zuela.

Instrukzio epailea Lasanta komandantea genuen guk, eta hura izan zen Burgosko Prozesuan instrukzio epailea Gipuzkoan harrapatutakoentzat. Beraz, Martutenera etorri zitzaidan bost bat egunetan, *instrukzioa* egitera.

Orduko hura militarren itaunketa izango zen. Abokatuak etortzen ziren tokian, gela erdibitzeko, altura txikiko horma leihatiladuna zeukan, Lasanta komandantea zegoen alde batean, mahai baten inguruan, eta harekin, auskalo nongoa zen soldadu bat, Olivetti idazmakina zahar bat besapean hartuta.

Ni beste aldean bakarrik. Ezin esan urduri ez nengoenik, baina Gobernu Zibilean eutsi banion, han errazago izango nuela esaten nion neure buruari, baina ez zen hain erraza izan. Eskerrak lehen momentutik bere puntu ahula aurkitu nuela. Besteak beste, musikazale porrokatua zen. Eta horri esker, denbora gehiena musikaz hitz egiten pasatu genuen: Coperin, Scarlatti eta antzekoak zituen gus-tuko. Hori bai, han zeuden galdera zorrotzek erantzuna behar zuten, nonbait, eta ni buru gogorra izan, eta han ibili ginen sokatiran bezala. Itaunketa bukatutzat eman da, behin baino gehiagotan sinatzeko eman eta, irakurri ondoren, aldatzera behartu nuen, konforme ez nintzelako han ipinitakoarekin. Handik hainbat urtera, 1990eko ekai-nean, ETAk hil zuen, Donostian.

Halako batean, atxilotuta zegoen ezagun bat ekarri zuten gizonezkoen kartzelatik, nirekin aurrez aurreko baterako. Berehala hasi zen esanez Eibarrera eramateko pa-per bat eman niola. Nik, berriz, ez nuela ezagutzen. Eta orduan esan zidan Lasanta komandanteak: «*Si aceptas lo*

*que dice éste chico, le dejo en la calle inmediatamente*».<sup>8</sup> Sinetsi egin nion, azken batean, militarra baitzen, eta horiek oso harroak izaten dira eta gustukoa dute hitzari eustea. Eta gazte haren askatasuna nire eskuetan bazegoen, argi nuen zer egin. Beraz, onartu nuen. Gero jakingo nuen arratsalde hartan bertan kalean utzi zutela.

Lasanta komandanteak nitaz esaten omen zuen: «*Es igual que un escorpión, bonita por fuera pero venenosa por dentro*».<sup>9</sup> Abokatuei entzunda dakit nik.

Lasanta horrek bakartze ziegatik atera ninduenean, Martuteneko kartzelan jende andana zegoela ikusi eta jakin nuen, gehienak ETArekin zerikusia zutenak, noski. Egundoko sarekadak egiten ari ziren Bizkaian eta Gipuzkoan.

Horrekin batera, gainera, hainbat neska eta mutil, eta jende ez hain gaztea ere bai, isunak ordaintzen ari zen garai hartan, baina diruz izan beharrean, kartzela egunekin. Urbiako bilkuran egoteagatik, elizetako elkarretaratzeengatik edo gose grebagatik, eta beste antzeko ekimenengatik isunak jartzen zituen Gobernu Zibilak, eta nolako isuna, hainbeste kartzela egun: 8, 15, 30 eta hiru hilabete ere jaso zituztenak ezagutu ditut. Kartzelak ere, bada, gainezka zeuden, komisariak bezala. Eta jendea, sartu eta irten etengabe.

Orduan bai, orduan jaso nituen kideen lehen musuak eta laguntza. Haien artean bi erizain zeuden isuna ordaintzen. Bat zumaiarra eta bestea donostiarra, oso oker ez banago. Haiek eskatuko zituzten esparatrapu zabal batzuk, saihets-hezurren gainean ipintzeko, eta ukenduz igurtzi zidaten gorputza, lehenago dutxa eder bat hartu ondoren.

Hurrengo egunerako, banuen Jokinen berri. Han zegoela, lasai egoteko, igeltsua jarrita zeukala hankan, baina lurrean ezin zuela ipini, takoirik ez zeukatelako Martute-

---

8. «Mutil honek dioena onartzen baduzu, kalean uzten dut berehala».

9. «Eskorpioi bat bezalakoa da, kanpotik ederra, baina pozoitsua barrutik».



neko erizaindegian... Eta horrela egon zen hilabete, Burgosko espetxera eramán zuten arte.

Jokinek eta biok elkar ikusi nahi genuen arren, zaila zen benetan. Igandeetan mezetan elkar ikusteko aukera zegoela esan zidaten kideek, eta ni prest Martuteneko kaperara joateko... Han pasatu nuen meza osoa, berari begira, gainetik begiak kendu ezinik, imintzioren batzuk eginez, argala zegoela adierazteko eta zaintzeko esanez. Ezpain ertzetik musuren bat bota eta pozez lehertu beharrean, bakoitza bere habiara.

Burgosko epaiketan elkar ikusi arte, kartzelan elkar ikusi genuen lehen aldia eta momentuz azkena izango zen. Abisua hartu baikenuen mutilen aldetik, mezetara ez joateko erabakia hartu zutela. Niri zoragarria iruditzen zitzaidan, militante kontsekuente gisa, baina erabaki horrek elkar ez ikustea zekarren, eta, noski, biok onartu genuen goitik behera.

Horrela, bada, Jokin eta biok ez genuen elkar ikusi eta ez ginen elkarrekin egon 1970eko abenduaren 3a arte. 31/69 epaiketa guztiz sumarioa genuen orduan: Burgosko Prozesua.

Martutenen egin genuen hilabete inguru horretan, ahalegindu ginen elkarren berri jakiten. Entzun genuen hara etortzen zen apaiza jatorra zela, euskalduna, eta beharbada gutunen bat eramateko prest egongo zela. Bakoitza gure aldetik saiatu ginen, baina oztopo eta aitzakia gehiegi jartzen zituen, eta ezinezkoa izan zen elkarren berri behar bezala izatea. Etortzen zen apaiza, nirekin hitz egitera, lasaitzeko asmoz, ondo ikusten zuela Jokin eta antzeko kontuak esanez. Orduan beti esaten nion Jokinek bere eskutik idatzitako berriek bakarrik lasaituko nindutela, baina tematia zen, eta ez zigun inolako mesederik egin. Mezetara joan gintezen nahi zuen hark azken batean, eta horretan saiatzen zen argudio guztiak erabiliz: nire aita ezagutzen zuela gerratik –segur aski, alde desberdinetan jardungo zuten–, egon zela berarekin eta amarekin, zein familia zoragarria nuen eta abar, eta abar...

Jokin eta biok, ordea, amorratu egiten ginen, elkarrekin hitz egin nahi eta ezinean. Etorri zitzaigun lehen abokatua ere, behin edo bitan, oraindik ez dakit hura nork izendatu zigun ere, baina galderak besterik ez zituen egiten. Jokinek oharra pasatu zidan, jana ekartzen zigun preso sozial batekin edo: erne egoteko abokatu harekin, susmo txarra hartzen ziola eta. Lasai egoteko, etorriko zitzaigula konfiantzazkoa.

Martuteneko kartzelan, gizonetzkoen aldean funtzionarioak zeuden, kartzela guztietan ohi zen eta den bezala. Baina emakumeen aldean, mojek betetzen zuten funtzionarioen egitekoa, eta baita ondo bete ere. Bazen gure patio denboran eskaileretan eseri eta zaintzen gintuen gazte bat, gaixoa! Gona luze beltza, gerrian egundoko gurutzetzarra, eta buruan hegodun kapela zuria. Adarra jotzen genion alde guztietatik, baina neska gazte gordin eta irribarretsua zen, eta gurekin gustura egoten zela esango nuke. Han izan nintzen denboran, abadesari guri baino beldur handiagoa ziola iruditu zitzaidan. Gerora, Martutenetik mojak desagertu ziren arte, goraintziak bidali izan zizkidan modu batera edo bestera.

Hain zuzen ere, kartzelan igaro nuen nire lehen urtebetetzea izan zen hura, eta handik hamabost egunera eraman ninduten Iruñeko presondegira. Bezperan kideetatik bereizi ninduten, eta bakartze ziegara eraman.

Emakumeen *logela* lehen solairuan zegoen, eta korridore luze bat zen. Oheak bi ilaratan zeuden aurrez aurre, eta errezelek banatzen zuten ohe bat bestetik. Maletaxoa ohe azpian, arropekin, eta korridorearen bukaeran dutxa eta komuna. Beheko solairuan, patio txikia bere harrika txikiarekin, arropak garbitzeko eta eskegitzeko. Patio hartan, noski, ez ginen sartzen guztiok eta, beraz, ez zegoen ibiltzerik ere. Aurrean, mahai handia zuen sukalde zahar bat, eta ekonomika baten gainean ikusi nuen lehen gauza kafesne eltzekada izan zen, ogia ere bazegoen, eta kanpotik sartutako gurina, opilak, marmelada eta ez dakit zenbat kontu gehiago! Hori bai mauka komisariatik eta bakartze ziegetatik datorren edonorentzat! Sukalde

aurrean gela zabal bat zegoen, bertan eguna pasatzeko bakarra beharbada. Baina une hartan oso txikia geratzen zena barruan ginen emakume kopuruaren arabera.

Azken gaua Martutenen pasatu ondoren, bakartze ziegan bertan, gogorra izan zen 1969ko apirilaren 24 hura. Aurreko egunetan kideak erori ziren Artekalen. Jokinek eta biok asko estimatzen genuen kide eta lagun batek ihes egin zuen. Gogor aritu ziren haren bila, egun luzeetan, eta hiltzat ere eman izan zuten gerora, baina gaur egun senideekin Euskal Herrian bizi da. Kontu hark guztiak goibeldu eta kezkatu egin ninduen, eta, bereziki, Jokinen egoeraren berri ez jakiteak. Bi egunetara, Mogrovejoko erorketa bortitza etorri zen. Eta 1968ko abenduan eta 1969ko urtarrilean atxilotutako kideekin batera, hurrengo hilabeteetan osatu zuten 31/69 epaiketa guztiz sumarioa.

Martuteneko lagunartean negarra nabaritzen zen bakartze ziegara eraman nindutenean. Gauean, noizbehinka adore hitzak entzuten nituen ziegatik, eta kanturen bat edo beste, zaindaritzan zeuden guardia zibilek isilarazi arte. Ikusten zen adi zeudela, nirekin zer gertatuko ote zen jakiteko gogoz. Goizean, esnatzeko turuta jo baino lehen atera ninduten guardia zibilek haien furgonetara, eskuburdinekin lotuta. Haien artean eraman ninduten Iruñera. Beste kartzela hartara iristean esan zidaten Iruñeko kartzela zela, eta han berriro ere mojak aurkitu nituen! Jokin, egun beran, Burgosko kartzelara eraman zuten.

Orduan ez zegoen ez etxera eta ez abokatuari telefonoz deitzeko aukerarik, eta lehen bisitan, igandean, senideen bidez jakin nuen Jokin Burgosko kartzelara eraman zutela. Ordudanik, bion senideak bihurtu ziren berri-emai-le zuzen eta zintzoenak.

Kartzela aldian, elkarren berri izateko eta batak besteari maitasuna adierazteko eskutitzak genituen bitarteko bakarra. Bide hura jorratu genuen, elkarri laguntzeko, nahiz eta askotan gaizkiulertuak ere izaten ziren, baina guztiz aberatsa izan zen bide hura, zalantzarik gabe.

Milatik gora izango dira gordeta dauzkadan eskutitzak, bionak, eta orain irakurtzean negarra begietara da-

torkidan arren, ondasun preziatuena dira garai bateko hitzak biltzen dituzten orrialde horiek.

Idatzi genituenean, bagenekien ez genituela geuk bakarrik irakurriko. Are gehiago, baita lehenik kartzelako zuzendariak eta gero ahal zuten guztiek irakurriko zituztela ere, baina elkarrenganako beharra eta laguntza horren guztiaren gaitetik zegoen. Zuzendariak behin baino gehiagotan deitu ninduen bere bulegora, eskutitzen harira, halako ilaran ageri ziren honako hitzak kendu behar nituelako, edota eskutitza berriro idatzi, hasieratik, hura «ezin zelako bidali». Harekin nahikoa ez, eta kontabilitatea eramateko koaderno-liburua ere bazuen, eta bertan idazten zuen nire eskutitz bakoitzaren laburpena. Behin, eskutitza ez zitzaiola gustatu eta aurrekoan zer esaten nuen irakurri zidan: «*Tengo la obligación de hacer un seguimiento en cuanto a las procesadas en el Sumarísimo 31/69*»,<sup>10</sup> esan zidan, aitzakia gisa.

Gure arteko gutunek traba gutxi ez bazuten, nagusia falta zen: derrigor gaztelania hutsean idatzi beharra. Hasi nintzen, «maitea, bihotza, kuttuna» eta antzekoak ipintzen, eta berehala deitzen ninduen hura nire eskuz ezabatzeko. Tirabira dezente izan ondoren, Espetxe Zuzendaritza Nagusira jotzeko esan zidan. Hark baimena ematen bazuen, berak ez zuela oztoporik jarriko. Eta horrela egin nuen. Zerrenda luzea idatzi nuen: «besarkatzen zaitut, maite zaitut, laztana, maittia, nire bihotza» eta antzekoak jarritz, eta baiezkoa jaso ondoren, lasaiago jarraitu nuen, hitz berriak sartuz...

Jokinek Burgosko espetxetik idatzi zidan lehen eskutitzak 1969ko uztailaren 3ko data du: «*Querida Itziartxo: Desde hace mucho tiempo ansiaba escribirte, pero no me ha sido posible antes, ya que me ha llegado hoy mismo el certificado del párroco*» [niri bikotekide bezala idazteko baimena emanetz].

«*No sé por dónde empezar, ya que tengo muchas cosas para decirte. Con los aiatxos me escribo todas las semanas, y éstos han sido los que me han tenido un poco al corriente de tu situación.*

---

10. «31/69 epaiketa guztiz sumarioan prozesatuta daudenen jarraipena egiteko bete-beharra daukat».

*Tengo que decirte que me encuentro bastante bien, y que mi moral es buena. Sobre la pierna, tengo que decirte que está casi curada, y que aunque me pongo una tobillera, ya que todavía se me hincha un poco, ando ya normalmente.*

*Le he pedido a mi hermana, que me mande fotos de toda la familia, y también alguna más tuya, ya que no tengo más que una pequeña de carnet.*

*Me imagino que ya estarás al corriente del juicio que tuve el día 2 de junio en Madrid. Tengo que decirte, que todavía no me han dado la sentencia, ya que parece que ha revocado Bandrés, por no estar de acuerdo con la primera sentencia de 2 años y 6 meses [Epaitegi Gorenera jo eta honek 6 urte eta bi hilabeteko zigorra eta 20.000 pezetako zigorra ezarri zion].*

*El 26 de junio, tuvimos visita del Capitán General de la VI Región Militar, y le pregunté por tu caso. Me dijo que no era nada grave, ya que sólo tenías el delito de encubridora. Por mi caso me dijo, que el juicio tendremos seguramente todos en S.S., y que todavía tardará bastante.*

*Sobre una fuga que tuve el año pasado en Fuenterrabia, he quedado sobreseído (No tengo juicio).*

*Estoy esperando un día de éstos, tu contestación sobre el abogado, te digo por si estás conforme en cambiar éste, que Bandrés me avisó que está de acuerdo en defendernos a los tres que estamos en este Sumarísimo.*

*¿Cómo están tus costillas?. Espero que se te haya curado, y que no te quede más que el recuerdo, ¿Eh biotza?*

*Por las últimas noticias que me han dado en las cartas, creo que te encuentras bien y con mucha moral, y además por lo que me dicen, estás guapísima.*

*También me avisaron, que ya estabas con otra compañera, ¡en fin!, me figuro que lo habrás pasado bastante mal el tiempo en que has estado sola, ya que no hay nada peor que la soledad en estos sitios.*

*Cuando recibas esta carta, ya llevamos cuatro meses en la cárcel, y más de tres meses sin vernos, de todas formas espero que pronto nos podamos ver, "aunque sea entre rejas", ya que no he perdido la esperanza de que vas a salir en libertad provisional.*

*Tendo que decirte que un compañero que está con nosotros, ha estado en sumarísimo hasta hace muy poco tiempo, y en cambio ya le ha comunicado el Juez, que con una fianza de 15.000 ptas. puede salir en libertad provisional. Todavía no hace un mes, que le había dicho, que no le iban a quitar el sumarísimo, y ahora ya está en Orden Público (...).*

*Aquí aprovechamos el tiempo todo lo que podemos, entre gimnasia, lectura de libros, y clases de euskara, a ésto último le estoy dando fuerte con los verbos, y muchos ejercicios de dictado, y me suelo acordar muchísimo de las clases que nos dabas a la amatxo y a mí, "sobre todo cuando me fijo en el que nos da la clase", ¿te acuerdas de mi teoría? (...).*

*Esperando noticias tuyas, y hasta una próxima carta, un abrazo muy, muy fuerte de éste que te quiere y no te olvida. Jokin.*

*Besos y recuerdos a todos los tuyos. Un saludo a tu compañera».<sup>11</sup>*

---

11. (Euskaraz idazteko debekua zela medio, testuak jatorrizko bertsoan ematea erabaki dugu eta itzulpena oin-oharretan).

Itziartxo maitea: aspalditik nengoen idazteko desiratzen, baina ezinezkoa izan zait lehenago egitea, gaur bertan heldu baitzait apaizaren egiaztagiria.

Ez dakit nondik hasi, izan ere, gauza asko dauzkat esateko. Gurasoei astero idazten diet eta horiek eman didate zure egoeraren berri.

Nahiko ondo nagoela eta nire morala ona dela esan behar dizut. Hankari buruz esan behar dizut ia osatuta dagoela eta, nahiz eta orkatiletako bat janzten dudan oraindik pixka bat hazten zaidalako, dagoeneko normal ibiltzen naiz.

Nire arrebari familia osoaren argazkiren bat bidaltzeko eskatu diot, baita zurea ere, ez baitu nortasun agiriko txikitxo bat baizik.

Imajinatzen duk ekainaren biau Madrilen izan nuen epaiketaren berri izango duzula. Esan behar dizut oraindik ez didatela epaia eman, Bandresek atzera bota duelako, 2 urte eta 6 hilabeteko aurreneko epaiarekin ados ez dagoelako.

Ekainaren 26an VI. Eskualde militarreko kapitain jeneralaren bisita izan genuen eta zure kasuagatik galdetu nion. Esan zidan ez zela batere larria, soilik estalgile salaketa zenuelako. Nire kasuaz esan zidan segur asko epaiketa Donostian izango genuela denok eta oraindik kostako zitzaioela.

Aurreko urtean Hondarribian izandako ihesari buruzko epaiketa artxibatu dute (epaiketarik ez daukat).

Itzaroten nago hauetako egunen batean abokatuari buruzko zure erantzuna iristeko. Hau aldatzearekin ados bazaude, Bandresek esan zidan ados dagoela gutziz sumario honetan gauden hirurok defendatzearekin.

Zer moduz daude zure saihetsak? Espero dut sendatu izanen direla eta soilik oroitzen izango duzula, e, bihotza?

Eskutitzetan eman dizkidaten berrien arabera, uste dut ondo zaudela eta adore handiz eta, gainera, esan didatenez, izugarri ederra zaude.

Esan zidaten beste lagun batekin zeundela. Tira, suposatzen dut nahiko gaizki pasa izanen duzula bakarrik egon zaren denbora tartea, leku hauetan ez baitago bakardatea baino txarragorik. HURRENGO ORRIAN JARRAITZEN DU.

Hamalau hilabetean eskutitz honi eta beste hainbati nik erantzundakoak betiko galdu dira. Jokin eta garai hartan Burgosen zeuden kideak ihesa prestatzen ari ziren, eta nire maiteak apurtu egin zituen, funtzionarioen eskuetan erori baino lehen. Nik berari idatzi nion lehen eskutitza 1970eko irailaren 10ekoa da.

## Iruñera

Urte pasatxo hartan, badira kartzelako bizitzari lotutako hainbat kontu, eta baita gertakari garrantzitsuak ere. Jokinek aipatzen duen bezala, hiru bat hilabete egon nintzen bakarrik Iruñeko kartzelan, mojekin. Kartzela hura filmetan ateratzeko modukoa zen. Sabaia oso altua zuen, burdinazko egundoko atetzarra, zarata ikaragarria ateratzen zuten sarrailez hornitua, burdinazko ohea, ondoan *takilloia* deitzen genion mesanotxea, beharrezko arropak gordetzeko, buruaren parean sabaia ukitzen zuen leihoa, eta ate ondoko eskuin aldean eskuak doi-doi sartzen ziren konketa txikia, atzean estalkirik gabeko komuna, eta ate ondoan, ezker aldean, iturria, eta han zintzilikaturik, zinkeko baldea. Berez, otorduetan erabilitako ontziak garbitzeko zen, baina baita norbera garbitzeko ere! Han ez baitzegoen dutxarrik, astean behin besterik. Gainera, ura berotzeko, sua egin behar izaten zen egur eta ikatza-rekin. Horrela, bada, mojek astean behin pizten zuten, denak garbi gintezen, eurak eta gu. Arropa, garbitegi ba-

---

### II. AURREKO ORRITIK JARRAITZEN DU.

Gutun hau jasotzerakoan lau hilabete beteko ditugu kartzelan eta hiru hilabetetik gora elkar ikusi gabe. Hala ere, espero dut posible izango dugula elkar ikustea "giltzapean" bada ere! Oraindik ez dut galdu zu behin-behineko askatasunean ateratzeko itzaropena.

Esan behar dizut gurekin dagoen kide bat duela oso gutxi arte guttiz sumario batean egon dela eta epaileak adierazi dio 15.000 pezetako bermea ordaindutan behin-behineko askatasunean atera daitekeela. Oraindik ez du hilabetea egin esan ziola ez ziotela guttiz sumarioa kenduko eta orain Ordena Publikokoan dago (...).

Hemen denbora ahalik eta gehien profitatzen saiatzen gara, gimnasia, liburuak irakurri, euskara klaseak, azken honi gogor sakatzen ari naiz aditzekin, diktaketa ariketa ugarirekin eta asko akordatzen naiz amatxo eta bioi ematen zenigun klaseez. "Batez ere klasea ematen digunari erreparatzen diodanean", nire teoriarekin akordatzen zara? (...).

Zure berrien zain eta hurrengo eskutitza arte, besarkada estu-estu bat maite eta ahazten ez zaituen honen partez. Jokin.

Muxu eta eskumuinak zureentzat. Agur bat zure kidearentzat.»

tean eskuz garbitu eta patio txiki batean eskegi, beren arrokekin batera. Hura zen plana, hura!

Horretarako, ikustekoa zen zer-nolako ohiturak ezarri nahi zizkiguten. Han, egun batean, korridorean eseri eta planto egin genuen. Uste dut hiru behintzat baginela ordurako: Mertxe Agirre, Jone Dorronsoro eta neu, dutxarako geure gauzak eskuan hartu eta dutxatu arte handik ez ginela mugituko esanez. Abadesa eta kartzelako zuzendaria ere etorri ziren. Falta oso larria omen zen, baina handik aurrera, gutxienez astean bitan izan genuen dutxatzeko aukera, eta beste egunetan... baldearekin. Ur hotza hartu eta ahal zen moduan goiak eta beheak hantxe garbitzen genituen, lixiba bota baldera eta gero ontziak garbitu, eta aurrera!

Mezetara joan behar omen genuen. Etorri ziren elizako arduradunak gurekin hitz egitera; lehenengo bakarka hartu gintuzte eta ondoren guztiok elkarturik, alde bateko zein besteko arrazonamenduak mahai gainean jarritz. Gu, berriz, geurean, haiek berean jarraitzen zuten bezala. Ez zuten lortu gu eramaterik, trikimailu guztiak erabili arren!

Gure ziegak zeuden korridore gainean *pisua* zuten egina gure mojek. Egurrezko etxaurrea pintura grisez estalita zuten, eta beheko ziegak eta korridorean zeudenak kontrolatzeko leihatila batzuk ageri ziren. Handik ateratzen zuten burua, txotxongiloen antzera. Bazen moja zahar bat, gorroto nuen. *Sor tortilla* deitzen nion. Abokatuarekin egon behar nuen bakoitzean goitik beherako miaketa egiten zidan, gorputz barruan ezer ote neraman ikusteko makurrazazi, eta oinetakoetan ere eskua sartzen zuen. Sutan jartzen nintzen, aurpegia gorrituta, egundoko *malaletxean*, malko artean, eta horiek xukatuz agertzen nintzen abokatuarengana. Abokatuari ere esan nion, baina haiek gutxitan etorri ziren, artean ez baitzuten eskuetan sumeriorik. Gainera, Jokinek eta biok aldatu egin genuen abokatuia, eta ez dut gogoan Bandres Iruñeko kartzelara noiz joan zen. Beste mojek, abadesak, batez ere, ez zuten horrelako jarrerarik erakutsi, eta denbora batera kendu zuten lan horretatik *Sor tortilla* hura ere.